

AIARALDEA *hemen*



MALEN ATXA 'MATX':
"Nire abestiek interpretazio desberdinak dituzte entzuten duenearen arabera" 18-19 or.

OIHANE SALCEDO:
"Datorren denboraldian aurtengo marka hobetzea gustatuko litzaidake" 26-27 or.



Tubacexeko greba mugagabea auzitegira

EKAINAK 17-18
Tertangako aterpetxean

B

Aiaraldeko
7. EGONALDI FEMINISTAK

Solasaldiak, tailerrak, batukada, ahalduzte tailerrak, familia gunea (ipuin kontalaria eta jolasak), ikuskizunak...

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Laia

urtxintxa eskola

Graf!k

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
grafik.eus



KALITATEZKO PRODUKTU KORPORATIBOAK

Zure markaren komunikazio eraginkorrerako behar dituzun kalitatezko produktuak diseinatu eta ekoizten ditugu.

erreportajea



Agerraldia egin zuten igandean auziperatuei elkartasuna adierazteko. Aimar Gutierrez Bidarte

Elkartasun dinamika abian Tubacexeko auzipetuen alde

Ostegunean epaituko dute Tubacexeko langile bat eta 21 hilabeteko espetxe zigorra ezarri nahi dio fiskaltzak. Irailean beste hiru herritar epaituko dituzte greba mugagabeen parte hartzeagatik. Orotara, 20 urteko espetxe zigor eskaera dago mahai-gainean. Egoera horri aurre egiteko elkartasun dinamika jarri dute abian.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Igande eguerdian prentsaurrekoa deitu zuten Tubacexeko auziperatuek, senideek eta lagunek, Tubacex enpresako langile batzordearen eta Erresistentzia Kutxaren babesarekin. Agerraldiaren xedea izan zen jakinaraztea ostegunean, ekainaren 15ean, langile bat epaituko dutela 2021eko greban gertatutako istiluen harira.

Beharginak 21 hilabeteko espetxe zigorrari egingo dio aurre Gasteizko epaitegian, agin-

taritzaren kontrako atentatua eta desobedientzia leporatuta. 9:30ean elkarretaratzea egingo dute epaitegiaren aurrean, elkartasuna adierazteko.

Prentsaurrekoaren deitzaileek gogoratu zuten Ertzaintzak berirako lesioa eragin ziola langileari atxiloketan eta nabarmendu dute poliziek bereziki bortiz jokatu zutela berarekin.

Aste honetan egongo den epaiketaz gain, igandeko agerraldian azaldu zuten beste bat egongo dela irailean. Eskualdeko beste enpresetako hiru langile eseriko dira akusatuen aulkian, 4

urte eta 7 hilabeteko espetxe zigor eskaerekin. Prentsaurrekoaren antolatzaileen iritziz, enpresako langileak ez diren kontra "gehiegizko zigorrak" eskatzeak bi helburu ditu. Alde batetik, "saltzea protestetan gertatutako istiluak grebarekin zerikusirik ez zuten herritarrek sortu zizutela". Bestetik, borroka kriminalizatzea eta ekiditea herritarren eta gizartearen artean babesa jasotzea.

20 urteko espetxe zigorra

Eskaera fiskal guztiak aintzat hartuta, grebalariek 20 urte bai-

Ostegunean Gasteizko epaitegiaren aurrean egingo dute protesta, auzipetuari elkartasuna adierazteko

no gehiagoko kartzela zigorrak metatu dituzte. Aipatutakoez gain, beste bi langile daude epaiketaren zain.

Lehenengo epaitua

Tubacexeko grebari lotutako lehen epaituak hartu du hitza agerraldian, besteak beste, eta berak gogoratu du absolbitua izateaz gain, "epaileak argi eta garbi utzi zituela ertzainen gezurrak".

Horregatik guztiagatik, akusatatu guztien absoluzioa aldarrikatu dute, babesa eta elkartasuna adierazteko deia zabaltzearekin batera.

Urduña

Urduñako erabiltzaileek salatu dute Renfek gaueko azkenengo trenak kendu diela



Amurrion bukatzen du bere ibilbidea 23:35eko tren zerbitzuak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatzaren 15ean Renfek trenen ordutegiak aldatu zituen eta horrek eragina izan du Urduñako bidaiariengan. Izan ere, orain ezin dute C-3 lineako azken tren hartu eta Bilbotik urduñara doan azken zerbitzua 22:35ekoa da.

Urduñako erabiltzaile batzuk harremanetan jarri dira Aiaraldea Komunikabidearekin eta azaldu diote trenak hartzeari utzi egin diotela, lanagatik ezin baitzuten 22:35eko tren hartu. Ondorioz, auto baliatzeari ekin diote.

Renfek arrazoi teknikoak argudiatu ditu ordutegi aldaketa hori egiteko. Izan ere, Saratxo eta Urduña artean ari dira lanak egiten. Horregatik, 23:35eko tren ez da Urduñara heltzen eta Amurrion gelditzen da.

Horrez gain, nabarmentzekoa da maiatzaren 15ean ordutegi berria indarrean sartu zenetik, atzerapenak are ohikoa goak bilakatu direla zerbitzuan.

Berez, ez da urduñarrek salatu duten lehen arazoa Renferen jarrera dela-eta. Izan ere, Udalak enpresari eskatu zion zerbitzu berezia eskaini zezan otxomaiotan eta harkukoeginzian.

Udalaren adierazpena

Itziar Biguri alkateak azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari azken asteetan kexa ugari jaso dituztela Urduñako Udalean, ez bakarrik azken trenak kentzearen ondorioz. Herritarrak kexu agertu dira atzerapenengatik eta beste tren batzuk ere kendu dituztelako. Udalak Renferi bideratu dio ezinegon hori, baina bigurik salatu du enpresaren aldetik ez dutela "inolako erantzunik jaso".

Aldaketak egin eta kendu

Egoera horren aurrean, Urduña eta Amurrio arteko zenbait trenen ordez, autobus zerbitzua eskainiko zuela iragarri zuen Renfek ekainaren 6an. Edonola ere, iragarpenak gutxi iraun zuen: eguerdian kartelak kendu zituzten eta arratsaldean ekin zioten bozgorailuen bidezko mezuek zabaltzeari. Horien arabera, ez da egongo aldaketarik.

Goiz horretan bertan Aiaraldea Komunikabidea Renferko informazio atalarekin jarri zen harremanetan eta berretsi diote, momentuz behintzat, ez dela ezer aldatuko eta maiatzaren 15ean indarrean jarritako ordutegiak dagoen moduan jarraituko duela.

Okondo

Apiriletik ur beltzen isurketa dutela salatu dute Unzabetzeko auzokideek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Unzabetzeko zenbait auzokide Aiaraldea Komunikabidearekin jarri dira harremanetan salatzeko apirilaren 26tik ur beltzen isurketak zeharkatzen duela auzunea. "Ezin ditugu ezta etxeko leihoak ireki", adierazi du okondar batek.

Egun horretan hasi ziren aza-

leratzen ur beltzak eta maiatzaren 15ean enpresa bat kontratatuzuten hobi septikoa garbitzeko.

Enpresak putzua hustu eta auzokideei ziurtatu zien, txosten batekin, hodia buxatuta zegoela harriekin edo lokatzarekin eta ez zela erabilgarria.

Gauzak horrela, 24 ordutan isurketa berriro azaleratu zen. URA Agentziako teknikari batek egin zuen bisita maiatzaren 16an

eta aholkatu zuen enpresa berriro deitzea, baina auzokideek azaldu zioten, alde batetik, enpresako jardunaldi bakoitzak 1.600 euro balio duela, eta, bestetik, arazoa hodian dagoela.

Geroztik, Unzabetzeko herritarrak saiatu dira URAk auzokideei bere gain har dezan, baina momentuz ez dute lortu eta ur beltzek auzunea zeharkatzen jarraitzen dute, ibaian amaitzeraino.



BABES PUBLIKOKO 12 ETXEBIZITZA ARRANKUDIAGA-ZOLLON

KOOPERATIBA ERREGIMENEAN

UZTAILAREN 13RA ARTE, GARONDO BIZIGUNEA KOOPERATIBAN IZENA EMATEKO EPEA IREKITA EGONGO DA



INFO+



Arrankudiaga-Zollo
Udala

Izena emateko: Garondo Bizigunea Kooperatiba 94 679 03 81

herriz herri

Amurrio

1.200 lagun baino gehiago bildu ziren ekainaren 4an Amurrioko Zabaleko Eskolako patioan, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteei elkartasuna adierazteko

“Elkartasun fase berri bat” ireki dute Aitor Zelaia eta Galder Barbado babesteko



jendetza elkartu zen Zabaleko Eskolako patioan bi gazteei elkartasuna adierazteko. Aiaraldea.eus

Testua **Almar Gutierrez Bidarte**

Auzitegi Gorenak Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarrei ezarritako lau urteko espetxe zigorrak berretsi ostean, sententziaren azken balorazioa esakini zuen iragan astean ANkerkeriari STOP plataformak. "Gaueko ordu txikitari Erantzintzak atxilotu eta lau urte baino gehiagoluzatzen ari den ibilbide politzial eta judizial ankerraren nahigabeko protagonistak bilakatu dira Galder eta Aitor", adierazi zuten plataformako kideek, eta prozesuaren "krudelkeria eta anakronismoa" salatu zituzten.

Auzitegi Goreneko epaileak apirilaren 26an batu ziren defentsak zein fiskaltzak Auzitegi Nazionalaren epaiari jarritako helegiteengaineko erabakia hartzeko, eta iragan ostegunean -maiatzak 25- egin zen publiko Madrilgo auzitegiaren erabakia; hau da, Auzitegi Nazionala-

ren epaia berrestea lau urteko espetxe zigor bana, urte beteko zaintzapeko askatasuna eta 10 urteko inabilitazioa ezarri bi gazteei.

Aurki espetxeratuak

Behin betiko sententzia mahai gainean, noiz betearaziko zain daude Barbado eta Zelaia. Audiencia Nazionalak "espetxeratzeko errekerimendua" abiatu behar du orain. "Errekerimendu hori, gainera, bat-bateko atxiloteta batekin lagunduta etor daiteke. Egungo egoera, beraz, argia da: hurrengo egun eta asteetan, atxilotetarekin edo gabe, Aitor eta Galder espetxeratuak izango dira", adierazi zuten Ankerkeriari STOP plataformako bozeramaileek.

"Amorrua eta maitasuna"

"Minetiketa amorrutik" egin dute balorazioa. "Ulergaitza egiten zaigu 2023. urtean horrelako eraso bati aurre egin behar izatea. Euskal He-

“Euskal Herriak aurrera” lemapean, mobilizazioak eta elkartasun keinuak egiteko deia luzatu diete Euskal Herri osoko eragile politiko, sindikal eta sozialei

ria aurrera doa, eskubide zibil eta politikoak urratu eta horrelako injustiziei aurre egiten kateatuta nahi gaituzten arren", nabarmenduzuen ANkerkeriari STOP plataformak eskaitako agerraldian.

Era berean, geroa "maitasunetik eta elkartasunetik" ere irakurri nahi dute Barbado eta Zelaiaren gertukoek: "Aitor eta Galder gure lagun, kide eta militante politikoak maite ditugu eta ez ditugu bakarrik utziko. Maite dugu herri honekin daukaten konpromisoa eta haiek milaka aldiz egin duten bezala, elkartasun uholde batzuli nahi diegu. Elkartasuna eta elkarrekiko babesa da herri honek duen baliorik handiena eta horregatik izango gaituzue ondoan".

Euskal Herriak aurrera

"Euskal Herriak aurrera" lemapean, mobilizazioak eta elkartasun keinuak egiteko deia luzatu diete plataformako bozeramaileek Euskal Herri osoko norbanako eta era-

gile politiko, sindikal eta sozialei.

Ekainaren 4an egin zuten "elkartasun fase berriko" lehen ekimena. 1.200 lagun baino gehiago elkartu ziren Amurrioko Zabaleko Eskolako Patioan, eta kamiseta urdian jantzita irudi babes irudi ikusgarria eskaini zieten bi gazteei. "Denbora gure kontra jarri nahi dute, prozesu hau ahalik eta gehien luzatuz eta Aitor eta Galderri eta haien senide eta lagunei zigor bikoitza ezarri. Jarri dezagun guk denbora gure alde, bete ditzagun Euskal Herriko kale, plaza eta txosnak elkartasunez, eta zabal dezagun gure mezua lau haizetara, jakin dezatela behingoz herri honek zutik dirauela. Horregatik, norbanako eta eragile desberdinei dei egiten diegu, zabalduko diren deialdietan parte hartu eta babes ditzaten, tokian toki burutu daitezkeen elkartasun keinuak zabaltzarekin batera", adierazi zuten Maddalen Muguruza eta Miren Lapitz bozeramaileek.

Laudio

Lauri Barria eta Kafe Iluntze izan dira Laudioko XIII. Pintxo Lehiaketaren irabazleak



Maiatzaren 31n eman zituzten sariak Lamuza parkeko Kasinoan. Aiaraldea.eus

Testua
Jone Gartzia Gerra

Laudioko merkataritza eta ostalaritza elkarteak herriko hamahirugarren pintxolehiaketa antolatu zuen maiatzean. *Dastatu Laudio* lelopean, 17 establezimenduk hartu dute parte pintxo barrarik onenaren eta pintxo libre onenaren kategorietan.

Oro har, APILLek "pintxoena maila handia" eta lehiaketak "herritarren eta bisitarien artean izan duen harrera bikaina" azpimarratu ditu.

Epaimahai teknikoa "sukaldari ospetsuek" osatu dute eta herritarrek ere bozka emateko aukera izan dute. Horien artean, gainera, zenbait oparixartel banatu zituen

Maiatzeko azken asteburuetan 'Dastatu Laudio' lemarekin antolatu du APILLek herriko pintxo lehiaketa

APILLek, 250 euroko bat, 100 euroko bat eta 25 euroko hamar.

Maiatzaren 31n, egin zuen APILLek sari banaketa Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan. Bertan banatu zituen aurrez aipatutako sariak herritarren artean eta balorazio teknikoaren zein herri-balorazioaren sariak bikategorietan, hau da, pintxo barrarik onenaren eta pintxo librerik onenaren sailetan.

Epaimahai teknikoak Lauri Barria saritu zuen bi kategorietan eta herritarrek, aldiz, Kafe Iluntze jo zuten bi sail horietako irabazle. Lauri Barria, gainera, pintxo librerik onenaren herri-balorazioan hirugarren sailkatu zen, epaimahai teknikoaren baloraziorik onena jasotzeaz gain.

Artziniega

Greba mugagabea deitu ostean, lan hitzarmen berria sinatu dute Lucart enpresan



Lan hitzarmen berria lortu dute Lucart enpresako langileek. **ELA sindikatua**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Greba mugagabea deitu zuten Lucarteko langileek maiatzaren 25ean eta protestak ez zuen 24 orduko iraupena ere izan, lan hitzarmen berria onartu baitzuten zuzendaritzak eta sindikatuek hurrengo egunean. Berez, 2018an erosi zuen Lucart enpresa italiarrak CEL konpainia eta kaleratzeak eta lan baldintzak kasikartzea eragin zuen horrek.

Mobilizazioari esker, lan baldintzak hobetzea lortu dute beharginek hurrengo bost urteetarako.

Ekoizpena etenda

Berez, langileek deitutako greba ostegunean hasi zen 06:00etan eta ekoizpena guztiz gelditu bazen ere, teknikoki, ez zen lanuztea izan.

Izan ere, enpresak proposatu zuen greba ordaindutako baime-na bilakatzea, nahiz eta behargi-

nak bere postuetan ez egon. Horren truke, zuzendaritzak eskatu zuen bi langile gutxiengo zerbitzuetan egotea lantegietan dena ondo zegoela zaintzeko.

Ez ohiko egoera horretan egon zen lantegia ostegunean, ostira-lean bertan itzuli baitziren beharrrera 06:00etan.

Aitor Gomez ELAko kideak aipatu du negoziazioa ez zela egun bakarrean gertatu: "Aurretik ari ginen hizketan, baina ostegunean dena adostu genuen eta aurrekordioa idatzi bezain pronto -egunean bertan- batzarretan onartu zen".

Enpresa garrantzitsua

Beste konpainia batzuek Lucart enpresak baino izen gehiago badute ere, eskualdean ekarpen handia egiten du fabrika horrek enpleguaren aldetik. Izan ere, Artziniegan 130 lagun daude papera ekoizten. Horrez gain, Aranguren 94 behargin ditu enpresak, eta 16 Gueñesen.

bertako
igogailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus

babestutako edukia

SORMEN BEKAK | SORMEN EGONALDIAK

Arte ARNASA.

Aurkeztu zure proiektua
kultura@aiaraldea.eus

Epea
uztailak 7

Oinarriak eta info +
kulturfaktoria.eus/bekak

*1.000€
udan sormenari
denbora
dedikatzeko*

Oxigeno bonbona bat, zure proiektu kreatiborako



info +



Aiara

Foru Aldundiak Aiarako bost errepideren zorua konponduko du



Arabako bigarren mailako 23 errepide konponduko ditu Aldundiak. Horietatik bost Aiarako bideak dira. Aiaraldea.eus

Testua
Jone Gartzia Gerra

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi du 1,5 milioi euro baino gehiago erabiliko dituela bigarren mailako errepideen zorua hobetzeko. Horretarako, lehen kontratu esleipena egin du, 965.774 eurokoa.

Horren bitartez, Arabako 23 errepidetan konponketak eta tratamenduak egingo dituzte, lurra hartxintzarrez garzatatuz.

23 bide horietatik, bost dira Aiarakoak: tokiko sarean sailkatutako A-3630 Retes-Erbi errepidea eta auzobide sarearen barruan dauden A-4602 Lezamarako sarbidea, A-4619 Izoriarako

Guztira 1,5 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu Foru Aldundiak toki eta auzo sareetako errepideak konpontzen

sarbidea, A-4614 Agiñagarako sarbidea, eta A-4622 Lexartzurako sarbidea.

Esleitutako kontratuak bi hilabete eta erdiko exekuzio epea du eta Aldundiak ohartarazi duenaren arabera, aurten zabalduko ditu toki eta auzo sareetako ekintza horiek kontratu berriekin, "guztira 1,5 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoa gainditzera".

Izan ere, foru erakundeak adierazi du narriadurak epe laburrean konpondu behar direla "larriagotu ez daitezten eta eraginik ez dezaten bide segurtasunean". Hori dela-eta, pitzadurak, zuloak eta deformazioak dituzten foru sareko errepideak konponduko dituzte.

Txikubin Txakolindegia urrezko domina irabazi du Jatorri Deitura Txikietako Ardoen Lehiaketan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Murgako Txikubin Txakolindegia bigarren urtez jarraian jantzi du urrezko domina Jatorri Deitura Txikietako Ardoen Lehiaketa Nazionalean. Hain zuzen ere, upategi aiararreko '13 Estrellas de Salazar' ardoa izan da saritua aurten ere.

Ardo apartua da '13 Estrellas de Salazar', Murgako dorretxe-

ko upategian ekoiztua, Txikubin txakolina egiteko erabiltzen diren mahats berdinekin.

Txikubin Txakolindegia

Upategi txikia da Txikubin Txakolindegia, eta XIII. mendeko Murgako dorretxean du egoitza. Lau hektareako mahastiek osatzen dute upategiaren uzta, eta Arabako Txakolina jatorri deitura txikiaren barruan dauden zazpi upategietako bat da.

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

ZURE EZKONTZA GUREKIN

XVIII. mendeko eraikuntza klasikoa

Aretoaren edukiera: 250 pertsona

Gonbidatuentzako ostatua

Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela

Ezkontzetako gure dossiera:
www.hotelbalneariorduña.com



Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com · www.hotelbalneariorduña.com

[@hotelordunaplaza](https://www.instagram.com/hotelordunaplaza)



LUYANDOPTICOS

www.luyandoopticos.com

> DENA BARNE, ERABATEKO LASAITASUNA
(Etkez etxeko banaketa, berritze automatikoa)

> DOAN ORDEZKATZEA
(Graduazio aldaketa galtzean)

> OPARI-BONUA (200€ arte)

> DOAKO ZERBITZUAK ETA GRADUAZIOAK

> ORDAINKETA EROSOA



%30
deskontua

UKIPEN-LEIARRAREN HARPIDETZAN

AMURRIO
Elexondo 1.
945 892 422

LAUDIO
Batzalarrin kalea 7.
944 042 286

URDUÑA
Kale Barria 7.
945 384 499



herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko 18 obra txiki eta auzolan finantzatu dituzte Arabako Foru Aldundiak aurten

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Obra Txikien eta Auzolanen 2023 deialdia ebatzi du Arabako Foru Aldundiak. Erakunde publikoak 3,6 milioi euro bideratu ditu guztira lurraldeko 243 proiektu finantzatzera. Proiektu horietako 18 dira Aiaraaldekoak, eta 293.405 euro bideratu ditu

guztira horietara. Deialdiak bi programa ditu. Auzo-harremnen eta bidezidorren programan, Foru Aldundiak materialak soilik ordaintzen ditu, eta bizilagunen esku geratzen da auzonak egiteko beharrezko tresnak eta eskulana lortzea.

Obra txikien programan, aldiz, 35.000 euroko aurrekontua gaintzen ez duten konponke-

ta eta birgaitze lanak finantzatzen dira.

"Toki entitateetako bizilagunen arteko harreman onak sustatzea" da egitasmoaren xede nagusia, Irma Basterra Lurralde Oreko diputatuaren esanetan. "Herrietan dauden beharrian asko asetzea" lortzen da horrela, beste modu batzuetan agian egin ezingo liratekeenak.

Jarrai gaitzazu instagramen!



@komunika.eus

Ematen ditugun zerbitzuak ezagutu nahi badituzu, egin ditugun lanak ikusi, gure lan egiteko moduaren berri izan nahi baduzu... jarrai gaitzazu instagramen

KOMUNIKAZIO

KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA
Komunikazio | Diseinu grafikoa | Ikus-entzuzkoak | Publizitatea | Itzulpen-gintza-interpretazioa
www.komunika.eus

Gosariak

Lan Eskaintza


Info

Interpre

Diseinua

Komunika

PUBLICACIONES REELS ETIQUETADAS



Datorren urtean jarri nahi du martxan Tubacexek Abu Dhabiko lantegi berria



Jesus Esmoris Tubacexeko zuzendaria akordioaren sinaketan Tubacex

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Tubacex hainbat aldiz agertu da komunikabideetan azken orduetan, eta ez soilik 2021eko grebategatik auziperatutako pertsonen epaiketengatik. Izan ere, multinazionalak enpresa-mugimendugarrantzitsua iragarri du aste honetan. Akordioa sinatu du Khalifa Economic Zones Abu Dhabi - KEZAD Group erakundearekin (Abu Dhabiko zentro ekonomiko eta industrial integratua), fabrika berria eraikitzeko Arabiar Emirerri Batuetako hiriburuan.

Akordio horren bidez, 50.000 metro karratuko lursail bat lagatu diote Tubacexi, lantegi berria eraiki dezan. Hodien akabera eta hariztatzea egingo dute bertan, 150 langilerekin. Multinazionalaren asmoa da fabrika 2024aren amaierarako martxan egotea.

Jesus Esmoris Tubacexeko zuzendariak hartu zuen parte akordioaren sinaketan, Arabiar Emirerri Batuetako hainbat ordezkari politikorekin batera (bertako Industria Ministroa, besteak beste).

Modu horretan, Tubacexek beste urrats garrantzitsu bat eman du iaz iragarri zuen akordioaren gauzatzean. Duela urtebete iragarri zuen enpresa-taldeak bere histo-

riako kontraturik garrantzitsuena sinatu zuela Arabiar Emirerri Batuetan, 10 urtetan 30.000 altzairu tona ekoizteko herrialde horretzat.

Esmorisen hitzetan, Tubacexek "fabrikazio-teknologia aurreratu eta iraunkorrenak" ezarriko ditu Abu Dhabin, "Arabiar Emirerri Batuek beharrezkoa duten funtsezko osagai baten hornidura bermatuz, gas naturalaren ekoizpenean gero eta helburu handiagoak lortzerabidean". Multinazionalen buruaren ustez, herrialdeak dituen helburu horiek "berebizikogarrantzia" dute "trantsizio energetikoaren panoraman".

Irabaziak lehen hiruhilekoan

Apirilean aurkeztu zituen Tubacexek 2023ko lehen hiruhileko emaitzak. Enpresaren arabera, inoizko hiruhileko onena izan da, zehazki, salmentetan 232,2 milioi euro lortu ditu Tubacexek 2023ko urtarilaren letik martxoaren 31ra bitartean; %46,9 gehiago iazko tarte berarekin alderatuta. Hori irabazietara eramanda, ordea, hazkundea are handiagoa da: 2022ko lehen hiruhilekoan 3,4 milioi lortu zituen enpresak. Aurten, aldiz, 10 milioi euro (%196,3 gehiago).

Aiaraldea

Eusko Jaurlaritzak iragarritako Ferosca I eta II proiektuen aurka lerratu da Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataforma, “lege-iruzurrean” oinarritzen direla argudiatuta.

Aiaraldean jarri nahi dituzten parke eoliko berrien aurka borrokatzera deitu dute Jesuriko tontorretik



Jesuriko tontorrera eraman zituzten aldarrikapenak ekainaren 10ean. Aiaraldea.eus

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Jesurira martxa egin zuten Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak larunbat goizean. Bi zutabetan abiatu ziren parte hartzaileak. Laudion 9:30ean abiatu ziren Herriko plazatik. Orozkon, aldiz, ordu erdi beranduago hasi zuten ibilaldia, Zubiaur plazatik.

Jesuriko tontorrean batuziren mendizale guztiak, eta bertan plazaratu zuten azken asteetan jazotako albisteen gaineko irakurketa. Izan ere, maiatzaren 29an (udal eta foru hauteskunde biamuneari) abiatu zituen Eusko Jaurlaritzak bi parke eoliko berri (Ferosca I eta Ferosca II) jartzeko prozedurak, eta hori “lege-iruzurtzat” jo zuen

Plataformaren aburuz, “lege-iruzurra” baliatuta tramitatzen ari dira proiektu berriak

plataformak. Biegitasmo horien gainean bildu duten informazioa jakinarazi zuten larunbatean Jesuriko tontorrean: “Ustezko Ferosca I zentral eolikoa Laudioko eta Aiarako lurretan kokatuko litzateke, eta Pikubiarte, Pagolar, Mostatxa, Antsoleta eta Pagonabarra mendien gailurrak hartuko litzuzke. 200 metroko altuerako 6 aerosorgailu jarri nahi dituzte, titulartasun publikoko mendien gainean, 27 MWko potentziarekin. Ferosca II zentral eolikoa, aldiz, Jesuri mendiaren ondoren egongo litzateke, (...) 200 metroko altuerako beste 6 aerosorgailu jarri nahi dituzte, potentzia berekoak eta onura publikoko mendien gainean”.

Plataformak berriz gogorarazi zuten Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak abiatutako baimen prozedurak ez dutela “lurralde-euskarri juridikorik, ez dute Energia Berriztagarrien Arloko Planik, eta ez dituzte betetzen eragindako udalerrien hirigintza-plangintzaren zehaztapenak”.

Era berean, parke eolikoaren aurkako mugimenduko kideek gogorarazi zuten 2007an antzeko egoera bat gertatu zela, “Industria Sailak hirigintza- eta lurralde-legeria betetzen ez zuten baimen ugari” tramitatu zitue-

nean. Plataformak azaldu zenez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion orduan emandako baimenak bertan behera uzteko, eta “Energia-aren Lurralde Plan Sektorial bat formulatzeko”.

Baina, mugimenduko kideek salatu zuten, eskaera hori ez da bete, eta Eusko Jaurlaritzak “plan berririk onartu gabe” ari da parke eoliko zein fotovoltaikoak instalatzeko baimenak tramitatzen. Jokatzeko modu hori ez dator bat “governantza eredu on batekin”, plataformaren aburuz. “Landa-inguruneke biztanleekin ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-gatazkak sortzen ari dira, eta, horretarako, plaka fotovoltaikoak instalatu nahi dituzte laborantza-lurretan, eta hai-ze-sorgailuak mendi lerroetan, berriz, biztanle gutxiko udalerrietan”. Horri lotuta, nabarmendu zuten badaudela “energia-trantzisioa lortzeko neurri jasagarriago edo osagarriago batzuk”, baina ez dituztela baloratu ere egin. “Ez da alde aurreko adostasun sozialik bilatu; aitzitik, bide eman zaie ekimen pribatuko proiektu berriztagarri ugari, benetako parte-hartze eta inplikazio sozialik gabe, eta zuzenean inplikaturako bizilagunei beharrezko gardentasunik eta informaziorik eman gabe”.



selene
fruitadenda

- 📍 Etxez etxeko zerbitzua
- 📍 0km produktuak
- 📍 Garaiko frutak eta barazkiak
- 📍 Egunero Iza okindegiko ogia
- 📍 Neurri egindako fruten eta barazkien saskiak

☎ 945 092 550 📍 Landako Kalea 1 Amurrio 📱 @fruitadenda_selene



Zure egunerokoaren parte gara

CuadraBus

OFICINA CENTRAL: Polígono 220000000, 48900 Amurrio, Bizkaia
T. 945 890 804
info@cuadribus.com



CuadraBus

erreportajea



Hauteskunde sindikalen urtea

Iaz eta aurten egiten ari dira Aiaraldeko enpresa handienetako hauteskunde sindikalak. Enpresa gehienetan dagoeneko egin dituzte bozketak.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Hauteskundez inguratuta bizi gara uneotan. Iragan maiatzaren 28an izan ziren udal eta foru hauteskundeak, eta datorren uztailaren 23an izango dira Espainiako Kongresu eta Senatukoak.

Baina horiek ez dira Aiaraldean aurten egin diren bozketa bakarrak. Badaude baita hauteskunde sindikalak ere. Hauek ez dira enpresa guztietan aldi berean egiten, bakoitzak bere egutegi propioa duelako, baina iaz eta aurten izaten ari dira eskualdeko lantoki handienetakoak. Eskumako taulan jaso ditugu denbora tarte horretan eskualdeko 50 langile baino gehiagoko lantegietan egin diren hauteskunde emaitzak.

Bozketa horien bidez, langileek aukera dute euren ordezkariak hautatzeko, baina delegatu kopurua enpresaren tamainaren arabera aldatzen da: 6-30 langile arteko lantokietan ordezkari bakarra hautatzen da eta 30-50 beharginen artekoetan, aldiz, 3.

Enpresa handiagotan Enpresa Batzordea eratu egiten da ordezkari guztiekin. 50-100 langile arteko lantokietan 5 ordezkari osatzen dute komitea, 101-250 langile artekoetan 9 ordezkari, 251-500 artekoetan 17 ordezkari eta 750-1.000 artekoetan 21 ordezkari.

Eskumako taulan agertzen diren 18 enpresetan 2.912 langile zeuden deituak guztira bozkatzera, eta horietatik 2.302k jo zuten hauteskontzietara; hau da, %79ak. Hau da, abstentzioa udal eta foro hauteskundeetako (%33,59) baino txikiagoa izan da lan-esparruan.

Sindikatuaren iritziak

ELA eta LAB dira ordezkari gehien dituzten sindikatuak. ELA sindikatuak positiboki baloratu ditu lortutako emaitzak, eta nabarmendu du 20 urte baino gehiago daramatzala "Aiaraldeko sindikatu erreferentea" izaten. Egungo egoera latza dela uste du sindikatuak, "Kontsu-

morako Prezio Indizearen gorakadarekin eta enpresa zuzendaritza oso eraso-korrekin". Horren aurrean, "klase harrotasuntzat" du ELAk bere burua, "erabateko autonomia politiko eta ekonomikoa" duela argudiatuta, bere finantziarioaren %90 baino gehiago bere afiliazio-tik datorrelako. Gauzak hala, "ildo bereik" jarraitzeko asmoa du sindikatuak, "jokatzeke eta arazoei heltzeko moduan ezer aldatu gabe".

LABek ere positiboki baloratu ditu Aiaraldean lortutako emaitzak. "Beti daude gorabeherak, eta beti hobetzeko zerbait geratzen da, baina pozik gaude emaitza orokorrekin, enpresa askotan LABen ordezkariak mantentzea edo hobetzea lortu bait dugu". Sindikatuak aitortu du ez dela erraza izan hauteskundeak "azken hilabeteetan hainbat enpresa eta sektoreetan izandako borrokekin" bateratzea. "Sindikatu borrokalari eta langileekin konprometitua garen heinean, batzuetan indarra eta gogoa borrokan edo arazoetan dauden horietara joaten zaigu", azaldu dute LABeko kideek, baina gaineratu dute borroka horiek isla dutela bozketen emaitzetan. "Hortxe dugu Tubacexen hiru lan zentroetan izan dugun gorakada nabarmena". Gauzak hala, geratzen diren hauteskundeetan delegatu kopurua hobetzea da LABen erronka, eta "gogoz" helduko diote helburu horri.

ESKk ere balorazio positiboa egin du, baina bere ordezkariak eskualdean askoz txikiagoa dela aitortuta. Gauzak hala, dituen ordezkariak mantendu eta areagotzea jarri du helburu moduan, eta orain arteko lan sindikala egiten jarraitzea.


Pendiente daudenak

Hauteskunde gehienak dagoeneko egin diren arren, hiru enpresa handi daude oraindik enpresa batzordea berri gabe: Artiachen datorren ekainaren 20an dute zita, Gometeguin urrian, eta Tubos Reunidosen azaroan.

HAUTESKUNDEAK, ENPRESAZ ENPRESA

2018-2019
2022-2023

DEGUISA




LANGILE ERROLDA: 57
BOTOAK: 44
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2026-12-19

ARESKETA IKASTOLA




LANGILE ERROLDA: 82
BOTOAK: 53
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2027-01-30

INDUSTRIA AUXILIAR ALAVESA




LANGILE ERROLDA: 177
BOTOAK: 152
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2023-02-12

MEGATECH



LANGILE ERROLDA: 171
BOTOAK: 159
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22

JEZ



LANGILE ERROLDA: 214
BOTOAK: 184
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-06-04

GUARDIAN LLODIO UNO S.L.



LAB: 2
ESK: 1
LANGILE ERROLDA: 186
BOTOAK: 145
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-02-12

OHARRA: AURREKO HAUTESKUNDEETAN AUTOGLAS GUARDIANEN PARTE ZEN ORAINDIK, HORREGATIK DAGO ORDZEKARI KOPURUAN ALDAKETA

LAUDIO IKASTOLA



LANGILE ERROLDA: 108
BOTOAK: 45
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-04-25

TUBACEX TUBOS INOXIDABLES S.A.


LAUDIO



LAB: 1
CCOO: 3
STAT: 2
INDEPENDENTEAK: 3
UGT: 3
INDEPENDENTEAK: 1

LANGILE ERROLDA: 318
BOTOAK: 268
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22

MADERAS



LANGILE ERROLDA: 181
BOTOAK: 168
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22


ACERIA DE ALAVA S.A



LANGILE ERROLDA: 207
BOTOAK: 184
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22


TUBACEX TUBOS INOXIDABLES S.A.

AMURRIO




LANGILE ERROLDA: 133
BOTOAK: 125
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22

FERRO



LANGILE ERROLDA: 76
BOTOAK: 72
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-02-22

ALIAxis



LANGILE ERROLDA: 88
BOTOAK: 74
HERRIA: OKONDO
IRAUNALDIA: 2027-04-02

ENVASES



LANGILE ERROLDA: 122
BOTOAK: 51
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2026-03-08

VIDRALA



LANGILE ERROLDA: 149
BOTOAK: 27
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2026-06-23

AMURRIOKO UDALA




FUNTZIONARIOAK



LANGILE ERROLDA: 76
BOTOAK: 60
HERRIA: AMURRIO
IRAUNALDIA: 2026-10-16

AIALA VIDRIO



LANGILE ERROLDA: 341
BOTOAK: 213
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2026-11-29

LUCART




LANGILE ERROLDA: 110
BOTOAK: 69
HERRIA: ARTZINIEGA
IRAUNALDIA: 2026-12-13

AIANOX




LANGILE ERROLDA: 72
BOTOAK: 51
HERRIA: MURGA (AIARA)
IRAUNALDIA: 2026-12-18

LAUDIOKO UDALA



LANGILE ERROLDA: 167
BOTOAK: 149
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2026-12-19

AMURRIO FERROCARRIL



LANGILE ERROLDA: 193
BOTOAK: 149
HERRIA: LAUDIO
IRAUNALDIA: 2027-01-22

HURRENGO DATAK

ARTIACH: EKAINAK 20 GOMETEGUI: URRIA
TUBOS REUNIDOS: AZAROA

Glavista erosteko eskaintza mahai-gainean



Javier Garcia Marquezek hartu nahi du Laudioko lantegiaren ardura, Euskal Herriko zein nazioarteko inbertsore talde handi bat bilduta. Epaitegiak gaur onartu du erosketari. ELAko sail sindikalak jakinarazi du langile guztiak subrogatuko dituztela, “egungo lan-hitzarmena errespetatuta”.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Laudioko Glavista lantegiaren egoera bideratzeaz dagoela dirudi. Fabrikak urtariletik darama hartzekodunen aurrelehiaketan. Iragan astean jakinarazi zuten Javier Garcia Marquez inbertsore getxoztarrak Laudioko lantegia erosteko asmoa duela; prozesua nahiko aurreratuta dago eta datozen asteetan izango da behin betikoa salerosketa. Behin hori gauzatu, lanera bueltatuko dira Glavistako 240 langileak. Hartzekodunen aurrelehiaketa kudeatzen duen epaitegiak, Laudioko Udalak,

Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ekainaren 9an onartu zuten erosketari. Zenbait hedabidek aurreratu dutenez, “nazioarteko zein tokiko” inbertsore talde handia bildu du Garcia Marquez enpresaren negoziorekin aurrera egiteko asmoz.

Gatazkaren erroak

Aurreikuspenen arabera, aste gutxi barru ebatziko da 240 familien etorkizuna sei hilabetez kolokan izan duen egoera. Glavista enpresa 2023ko urtarrilean sartu zen hartzekodunen aurrelehiaketan, eta hilabete gehiago zeramatzan Parter Capital inbertsio taldearekin

arazotan, baina gatazkaren erroa askoz lehenagokoa dela adierazi dute beharginek behin baino gehiagotan.

Hain zuzen ere, 2012ko greba mugagabearen kokatu dute askok egungo egoeraren ernamuina. Garai hartan, Glavista enpresaren ‘Autoglas’ fabrika Guardian taldearen esku zegoen, eta, ondorioz, ez zen Laudioko Guardian fabrikako ekoizpenlerrotat baino gehiago. Enpresa Batzordeko kideen hitzetan, Guardianek aspalditik zuen autoentzako haizetakoak ekoizteari uzteko asmoa, “arkitekturara bideratutako beiran” jartzeko indarra. Hori dela eta, 139 langile kaleratzeko erabakia hartu zuen talde

Parter Capitalek, ez zuen dirurik jarri, Laudioko fabrikari eta 2021eko urte amaieran hasi ziren gauzak okertzen, lehengaien prezioak gora egin ahala

estatubatuarrak 2012an. 2020an Parter Capital inbertsio funtsari saldutako ekoizpen lerroko langileak gehienak.

60 egunez luzatu zen greba mugagabe bati esker kaleratzeak bertan behera uztea lortu zuten langileek, baina mamua ez zen desagertu.

2013. eta 2015. urteen artean Guardianek autoen sektorerari bideratutako nazioarteko lantegi guztiak saldu zituen, Laudiokoa salbu.

2020ko erosketari

Azkenean iritsi zen Laudioko lantegia saltzeko unea. Guardianek Parter Capital inbertsio funtsu suitzarrari saldu zion ‘Autoglas’. Salerosketa

2012

2015

2020

Guardianek 139 langile kaleratu nahi zituen autoentzako haizetakoak ekoizteari uzteko asmoz. 60 eguneko grebaren ostean, beharginek lortu zuten kaleratzeak gelditzea

Hiru urtetan autoen sektorerari bideratutako lantegi guztiak saldu zituen Guardianek, Laudiokoa salbu

Guardianek Parter Capital inbertsio funtsari saldu zion Laudioko Autoglas lantegia

erreportajea

egun batetik bestera egin zutela gogoratu zion Aiaraldea Komunikabideari Enpresa Batzordeko kidee den Aitor Merinok. Parter Capital “erosle ideala” zela azaldu zion Guardianek langileei, baina errealitatea oso bestelakoa izan da.

Hain zuzen ere Parter Capital da Alcoa auziaren atzean dagoen inbertsio funtsa. Suitzarrek 2019an erosi zituzten A Coruña-ko eta Avileseko aluminio lantegiak ‘Alu Iberica’ izenarekin; hauek bi urtetan ez saltzeko eta lanpostu guztiak mantentzeko konpromisoa hartuta.

2020an, ordea, Alu Ibericaren %75a saldu zuen Parter Capitek, Alu Ibericako kutxetatik atera eta Suitzako banku korranteetara debideratutako diruarekin, hain zuzen ere.

Alcoa kasuak eztanda egin baino 10 egun lehenago itxi zuten gaur egungo Glavista enpresaren salerosketa Guardianek eta Parter Capitek.

Alu Iberica enpresarekin

gertatu ez bezala, egoerak bestelakoa zirudien Glavista enpresa osatzen zuten Laudio-ko fabrika nagusian, Valentziako lantegian eta Alemaniako biltegian. Lan-karga eta eskariak ugariak ziren 2021eko urte hasieran, eta inbertsio garrantzitsuak egin zituen Laudio-ko zuzendaritzak. Ohiko 240 langileei behin behineko 60 behargin batu zitzaizkien. Parter Capitek, ordea, ez zuen dirurik jarri, eta 2021eko urte amaieran hasi ziren gauzak okertzen, lehengaien prezioak gora egin ahala. “Ez dute negozioa aurrera eramateko inolako baliabiderik. Egiten dutena honakoa da: negozioa ondo badoa, berdin mantendu, eta gaizki badoa, hiltzen utzi. Xede bakarra dute: enpresa deskapitalizatzea eta poltsikoak ahalik eta gehien betetzea, eta gero beste kontu batera. Jende honek ez du inolako enpatiarik ez langileekin ez ezerekin”, azaldu zion Aitor Merinok Aiaraldea Komunikabideari.

Mobilizazio zikloa

Ia 18 milioi euroko zorra pilotuta eta Parter Capitek inbertsoreek ardurari ihes eginda, 2023ko urtarrilean sartu zen hartzekodunen aurrelehiaketan Glavista enpresa. Aurretik, hilabete luzeak eman zituzten beharginek zailtasun eta enplegua erregulatzeko espedienteekin.

Egoera bideratzeko asmoz, mobilizazio zikloa abiatu zuten orduan langileek. Sei hilabete hauetan manifestazioak egin dituzte Laudio, elkarretaratzeak fabrikako sarreran eta toki desberdinetara eramane dituzte enpresaren bideragarritasuna bermatzeko aldarrikapenak.

Orain, balizko erosle honekin datozen hilabeteetan lanera bueltatzea espero dute hilabete luze kolokan egon diren ia 240 langileek.

Nor da eroslea?

Baina, nor da Glavista enpresa erosteko erabakia hartu duen eroslea? Javier Garcia Marquez

“Nazioarteko zein tokiko” inbertsore talde handia bildu du Garcia Marquezek Glavista enpresarekin aurrera egiteko asmoz

ez da pertsona ezezagun bat Aiaraldean. Zuzenbide ikasketak ditu, Getxokoa da berez, eta Guardian lantegiko zuzendaritzako kidea izan zen hainbat urtez. Horrez gain, Heliotrope enpresa amerikarrarekin ere aritu zen duela bi urte, EAEn “adimendun beira” fabrika bat atontzeko asmotan.

Garcia Marquezek, Amine OPCO izeneko enpresa berria sortu zuen otsailaren 22an, eta bideragarritasun-plana aurkeztu du Glavistaren egoera bideratzeko. Plan horren bidez, Laudio-ko fabrikako 240 lanpostuak eta Valentzian duen filialetako 60ak mantenduko lirarteke. ELAko sail sindikalak azaldu duenez, langile guztiak subrogatuko ditu enpresa berriak, “egungo lan hitzarmena errespetatuta”. Ordezkariek espero dute jabe berriak “datozen egunetan” hartzea Glavistaren kontrola, “apurka-apurka normaltasunera itzultzeko”.



Mobilizazio ugari egin dituzte Glavistako langileek euren lanpostuen defentsan. Aiaraldea.eus

2020

Erosketa egin eta hamar egunera ‘Alcoa kasuak’ eztanda egin zuen. Alu Iberica enpresaren %75 saldu zuen Parter Capitek



Parter Capitalen utzikeria eta lehengaien garestitzea zailtasunak eragiten hasi zen Glavista enpresan

2021

2023

Urte hasieran eta 18 milioi euroko zorra pilotuta, hartzekodunen aurrelehiaketan sartu zen Glavista

elkarrizketa



“Osakidetzako garbitzaileok igaro gara txalotzuak izatetik, borrakadak jasotzera”

LOURDES GARMENDIA GALDAKAOKO OSPITALEAN GARBITZAILEA DA ETA DUELA BI HILABETE GREBAN DAGO, BERE KOLEKTIBOKO HAINBAT LANKIDEREKIN BATERA, EUREN LAN BALDINTZAK ERRESPETATU DITZATEN. LAN GATAZKAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZKIO AIARALDEA KOMUNIKABDIEARI



Testua
Aitor Aspuru Saez

Zein borrokan zaudete buru-belarri sartuta?

Osakidetzako garbiketako azpikontratato langileok homologazioa daukagu, osasun sistema publikoko gainetarako langileen plus berak ematen dizkiguna: ibilaldi profesionala, errelebo kontratua eta abar.

Jadanik 51 bilera egin ditugu Osakidetzako arduradunekin lan hitzarmena negoziatzeko eta blokeo egoeran gaude, ez baitigute eman nahi jadanik gurea dena. Ez dago aurrera pausorik. Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak enpresen teiltuan uzten du pilota eta enpresek esaten dute kontzeptu horiek ezin dituztela ordaindu Osakidetzak ez baditu ordaintzen. 2012an ibilaldi profesionalaren plusa bertan behera geratu zen krisialdiaren ondorioz. Orain deialdia ireki dute eta Osakidetzako langile orori eragin dio. Guztioi, guri salbu. Exijitu dugu guri ere ordain-

du diezaguten. Erabat baztertua da. Enpresan bertan 2012 baino lehen zeudenei ordaintzen zaie eta besteei ez. Esaterako, Osakidetzako lankide batzuekin 5.000 edo 6.000 euroko zorra du Osakidetzak eta ez du ordaindu nahi. Hortaz, eskatzen dugu homologazioa mantentzea eta indarrean egotea. Ez dugu ezer berririk exijitzen. Horregatik ekin behar izan diogu mobilizatzeari. Ia 80 eguneko greba egin dugu eta ez dago aldaketarik. Hori dela medio, Lan Sailburuordearengana jo dugu eta bazirudien bitartekari lanak egingo zituela, baina egin zigun eskaintzan ez zeuden gure aldarrikapenak, eta ez genuen onartu. Maiatzaren 8an izan zen azken bilera eta guk ahalegina egin dugu, proposatu genuen zor diguten guzti-guztia ez ordaintzea, baina, hala ere, ez da akordiorik egon.

Jarraituko duzue borrokan?

Bai, hedabide ezberdinetara jo dugu. Ea emaitzarik ematen duen... Gutxieneko zerbitzuak Eusko Jaurlaritzak

ezartzen ditu eta asteburutan dagoen zerbitzua ezarri du.

Grebaren eraginari dagokionez, hedabideetan denetarik entzuten dugu. Txerri deitzen digute eta esaten digute aintzat hartu beharko genukela ospitale batean gaudela. Jendeak maiz ahazten duena da ospitalea izateaz gain, lantokia ere badela. Etxean isilik ezin dugu gure aldarrikapena ikusgai egin, horregatik goaz gure lanpostuetara eta beti errespetatzen ditugu gaixoak. Hall-etan egiten ditugu protestak eta inoiz ez gaixoen geletan edota kirofanoetan. Gelak garbitzen jarraitzen dugu. Guk gaixoak errespetatzen ditugu. Esaterako, duela egun batzuk eten genuen Gurutzetako sukalde katea, baina lehenengo bost gurdiak atera ziren: pediatriako eta onkologiako gaixoen zat baitziren. Besteei bazkalordua atzeratu genien, besterik ez.

Zein borroka eredu baliatu dituzue?

Guztiak, akanpatu genuen aste euritsuenetan eta koltxoi

elkarrizketa

bustietan lo egin behar izan genuen, blai eginda. Ez daukagu babes askorik, baina bai kritika ugari, maiz erabil-tzaileen aldetik. Antza, ez dute gogoko desordena ikustea, baina gu borrokatzen ari gara gure eskubideen alde.

Duela ez horrebestez zuen lana oso aitortua zen.

Bai, pandemian txalo ugari jaso genituen, baina orain borrakadak ematen dizkigute. Eserialdia egin genuen Gurutzetako ospitalean eta Ertzaintzak jipoitu gintuen. Hainbat kide zauritu zituzten, baita salatuak ere. Egunero identifikatzen gaituzte mobilizazioetan.

Nolakoa da egoera zuen kolektiboaren barruan?

Denetarik dago. Batzuetan badirudi itxaropenerako argi izpia ikusten dugula eta badaude batzuk greba egiteari utzi behar izan diotenak. Bi hilabetez kobratu gabe, guztiok dauzkagu hipotekak ordaintzeko eta erresistentzia kutxarik ez duten sindikatuentzat hau oso gogorra da. CCOO, UGT, LAB eta ESK gaude grebaren atzean.

Batzuek lanera joaten hasi behar izan dute eta guk ulertzen dugu. Mobilizazioetara etortzen dira.

Zein erantzun izan duzue hedabideen aldetik?

Bandalismoa leporatzen digute. Guk postontzietan

“Gure protestetan gaixoak errespetatzen ditugu, gelak garbitzen jarraitzen dugu eta ez gara inoiz sartzen kirofanoetan”

ikusten ditugun propaganda paperak eta kartoiak jasotzen eta zatitzen ditugu eta botatzen ditugu. Erraza da minutu gutxitan dena mopa batekin jasotzea. Ez dugu ezer apur-tu, nahiz eta hori egotzi.

Euskadi plazara joan ginen elkarretaratzea egitera. Kasualitatez, han bizi da Osasun Sailburua eta bere atarian eskuorri batzuk bota eta pegatinak jarri genituen atarian. Handik gutxira agertu zen Ertzaintza eta leporatu zigun atariko sarraila apurtzea, zorionez, emakume bat jaitsi zen eta argitu zuen aspaldi zegoela apurtuta. Edonola ere, uste dut behartuko gaituztela ordaintzera. Sailburuaren fatxada eta guzti ordaindu beharko dugu azkenean.

Horrelakoa da gure egoera. Babes txikia dugu eta are gutxiago ertzainen aldetik. Duela gutxi Eusko Legebiltzar-raren aurrean egon ziren eurak tranbiaren ibilbidea oztopatzen eta ez zen ezer gertatu, eta handik gutxira gu bota gintuzten Legebiltzarretik. Arrastaka atera gintuzten, besoak bihurrituta. Ubelduraz beteta gaude.

Aurpegia eman nahi dugu borroka honetan, baina oso gogorra da. Egunero egiten dugu elkarretaratzea Gurutzetan goizean, gero bestelako mobilizazioa, ikusgarriagoa hedabidetan agertzeko.

Ea Gotzone Sagarduik entzuten gaituen behingoz, edo enpresek akordioa lortzen duten.



Garbitzaileek protestak egin dituzte Eusko Legebiltzarren aurrean. LAB sindikatua



Zatoz eta dastatu gure sagardotegia eta dastatze menuak!

Txotx!





Harrotasunez ospatuko dute asteburuan *genero eta sexu amiztasuna*

Laudio eta Amurrio Harro ekimenek giro alaiari aldarrikatuko dituzte LGTBQ+ kolektiboaren es-kubideak, harrotasunaren nazioarteko egunaren testuinguruan. Hori dela eta, egitarau oparoak prestatu dituzte Amurriokoa zein Laudion asteburu honetarako. Amurrrion, berez, jaiaren bigarren edizioa izango da aurtengoa. Iazko egitarauaren hezurdura mantenduko dute, baina, hainbat berrikuntza txertatuta. Alde batetik, larunbat goizean umeentzako jolasak eta tortilla txapelketa egingo dira, eta lehiaketa prestatutako tortillekin egingo dute bazkaria. Bazkalostean, aldiz, bin-

goa *drag queen* batzuk dinamizatuko dutena. Manifestazioa egingo dute ondoren, Juan Urrutia plaza, eta jarraian irakurriko dute pregoia. Ondoren, kalejira egingo dute batu kadarekin, eta *drag* ikuskizuna egingo da jarraian.

Gaua luzatzeko aukera egingo da. Ikuskizunaren ostean Abba Revival, Abba taldearen tributu, igoko da oholtzara, eta DJ 2Mino arduratuko da egunari amaiera emateaz.

Laudion bi egun

Laudio Harro, ordea, bi egunez luzatuko da. Has-

teko, ekainaren 16an 23:00etan LGTBQ+ kolektiboarekin harremana duten filmak eskainiko dituzte Zubiko Malekoian Ager Mendieta programatzailer laudioarrak aukeratu ditu.

Larunbatean arratsaldez eta gauez izango da ospakizuna. 17:00etan pregoia eskainiko du Yoghurina Borovak Zubiko Malekoian. Jarraian, kalejira egingo dute Suziri Jai batzordearen eskutik. 21:00etan takoi lasterketaren txan da izango da. Azkenik, Alberto Aceron egingo den Esne Beltzaren kontzertuaren ostean, ileordeen jaia egingo dute Malekoian.

MUSIKA

06.17 Larunbata
19:30 AMURRIO
ZANKUETA ABESBATZAREN EMANALDIA
Zortziko Alai eta Sanfuentes abesbatzekin batera
San Anton ermita

06.17 Larunbata
21:00 LAUDIO
THANATOPRAXY, PIKETA, ZUTIKI ETA USELESS HEAD
Orbeo Etxea

06.17 Larunbata
21:00 AMURRIO
DRAKELARRE SHOW DRAG, ABBA REVIVAL ETA DJ 2MINO
Amurrio Harro 2023
GUK Parkea

06.17 Larunbata
23:00 LAUDIO
ESNE BELTZA
Alberto Acero plaza

06.18 Igandea
19:00 LAUDIO
ANDERE ABESBATZA
Kasinoa

06.23 Ostirala
20:00 LAUDIO
JIMENA
Kaleko ostiralak
Aldai plaza

06.23 Ostirala
22:30 LAUDIO
BERANDUEGI ERROMERIA
ETA DJ REIMY
San Juan Astobitzako Jaiak
Larrazabal

06.30 Ostirala
20:30 AMURRIO
SENBRANDO KAOS,
SOFOKAOS ETA DJ
WINDOWS MEDIA PLAYER
Amurrioko Gaztetxea

KIROL JARDUERAK

06.14 Asteazkena
17:15 AMURRIO
AMURRIO TXIRRINDULARI
ELKARTEKO JARDUNALDI
IREKIAK
Abiagaberri

06.15 Osteguna
09:30 AMURRIO
IPAR MARTXA SAIOA
Izaskun Bengoarekin
Juan Urrutia Plaza

06.15 Osteguna
19:30 LAUDIO
ZINEFORUM MITOLOGIKOA
Orbeo Etxearen
urteurrenaren barruan
Orbeo Etxea

06.16 Ostirala
18:00 OKONDO
DOUBLE BILL
Zirku ikuskizuna
Udal Igerilekuak

06.16 Ostirala
20:00 LAUDIO
ITXARKUNDIA DANTZA
TALDEAREN EMANALDIA
Alberto Acero Plaza

06.16 Ostirala
20:00 LAUDIO
NOSTRXLADAMUS
IKUSKIZUNA
'Kaleko ostiralak' dinamikaren
barruan
Laudio Institutua

06.23 Ostirala
19:00 LAUDIO
JEDI GALAKTIKOAREN IX.
ETA AZKEN EDIZIOA
Orbeo Etxea

06.23 Ostirala
21:00 LAUDIO
EL SHOW DE LA POLAKA
Kaleko ostiralak
Aldai plaza

BESTELAKO JARDUERAK

06.16 Ostirala
12:00 LAUDIO
1940AN JAIOTAKOEN
TOPAKETA
Gorka taberna

06.15 Osteguna
18:00 URDUNA
EH BILDUREN HERRI
BATZARRA
Alondegia

06.16 Ostirala
18:00 ARTZINIEGA
IKASTURTE AMAIERAKO
MERENDOLA
Gaztelekua

06.16 Ostirala
18:00 AIARA
SLACKLINE ETA OREKA
JOLASAK
Gaztelekua

06.16 Ostirala
19:30 LAUDIO
'LAUDIOKO LOREAK'
TXANGOAK
Orbeo Etxeko urteurrenaren
barruan, Euskaske
taldearen eskutik

Gaztetxea

musika-talde gazteen aterpe



Azken hilabeteetako dinamikari jarraituz, musika-jaialdi berri bat antolatu du Amurrioko Gazte Asanbladak Amurrioko Gaztetxean. Ekainaren 30ean jarri dute hitzordu berria, 20:30etan. Oraingo honetan, Azken Sustraiak, Senbrando Kaos, Sofokaos eta Dj Windows Media Player egongo dira espazio autogestionatua girotzen. Sarrerak egunean bertan egongo dira salgai, bost eta hiru euroren truke.

Suaren inguruan

ospatuko dute udako solstizioa Aiaraldeko herri eta auzoetan



Ate joka dago udako solstizioa eta horrekin batera Aiaraldeko San Juan jaiak. Herri eta auzo ugarritan piztuko dituzte suak ekainaren 23ko gauean, eta honezkeron hainbat egitarau egin dituzte publiko.

Horien artean dago Urduñako sanjuanetako egitaraua. Ekainaren 23an Terrero auzoan prestatuko dute jai, 20:00etatik aurrera. Musika, dantza, jana, zurrakapotea eta akelarrea izango dira gaueko osagai nagusiak.

San Joan Astobizitako jaiak

San Joan Astobizitako Jai Batzordeak hiru eguneko egitaraua prestatu du Larrazabal auzoan. Festa nagusia, ordea, ostiralean -ekainak 23- egingo dute. 18:30etatik aurrera haurrentzako jolasak egingo dituzte, eta buruhandiak ere izango dira bertan. Sua piztearekin batera, txokolatada eta dantza erakustaldia egingo dute. Azkenik, Beranduegi Erromeritak eta DJ Reimyk ordu txiki-txiki arte luztauko dute jai-giroa.

Aiaraldeko I. Egonaldi Feminista

antolatu dute asteburuan Tertangan



Bor-bor Aiaraldeko Feminismo elkarteak larunbatetik igandera egonaldia egingo du ekainaren 17an eta 18an, Tertangan aterpetxean. Asteburuko topaketan emakumeak* saretzeko zein ahalduntzeko jarduerak egingo dira Tertangan, doan, eta umeentzako programazioa ere prestatuko dute. Aurreratu dutenez, Bizkaiko Urtxintxa Eskolak osatuko du umeentzako eskaintza, zaintza gunea ikuskizun eta jolasera ere emu bilakatuz. Ekimena sustatzeko liburuxka bat sortu eta banatu dute eskualdean zehar. Bertan pilatu dituzte ekintza guztien nondik norakoak.

Sanpedropekoak

ate joka Laudion

Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean ospatuko dituzte laudioko sanpedropeko jaiak. Musika eta lehiaketa gastronomikoak izango dira, ohikoan bezala, osagai nagusiak. Oholtza gainean tokiko sortzaile ugari arituko dira: Xabi Basterra, Egoitz Uriarte, Malen Arxa edota Azkenak Itxi Dezala DJ taldea.



06.13 Osteguna
19:00 URDUÑA
IPAR MARTXA SAIOA
Izaskun Bengoarekin
Foru Plaza

06.17 Larumbata
12:00 URDUÑA
ZUMBA SAIOA
'Mugi zaitezi' programaren barruan
Erretiratuen egoitza

06.17 Larumbata
17:00 ARTZINIEGA
UMEEN ETA NAGUSIEN IV. SPARTANA
Oztopo lasterketa mistoa
Axpe auzoa

06.18 Igandea
11:00 LAUDIO
10K LASTERKETA
Zumalakarregi etorbidea

TAILERRAK

06.14 Asteazkena
12:00 URDUÑA
MEMORIA KOGNITIBOA LANTZEKO TAILERRA
'Mugi zaitezi' programaren barruan
Erretiratuen egoitza

06.14 Asteazkena
18:00 AMURRIO
MINDFULNESS SAIOA OSASUNTU ZAHARTZEKO
Programaren 2. saioa
Nagusien Etxea

06.14 Asteazkena
18:00 AIARA
'NOLA SOZIALIZATU EUSKARAREN ERABILERA AIARALDEKO UDALKEUJETAN'
Hezitzaileentzako 2 orduko ikastaroa
Luiaondoko Gizrate Etxea

06.16 Ostirala
18:30 OROZKO
MUSIKA SORTZEKO LGTBI TAILERRA
Gaztetxokoa

IKUSKIZUNAK

06.15 Osteguna
18:00 AMURRIO
IOCUS PROIEKTUAREN AZKEN JARDUNALDIA
Kultur Etxea

06.16 Ostirala
20:00 LAUDIO
LGTBI+ GAIEN ZINEMA EMANALDIA KALEAN
Ager Mendietak gidatutako saioa
Zubiko Malekoi

06.17 Larumbata
11:00 ARRANKUDIAGA
EUSKAL EZKONTZA
Bertso-potea eta herri bazkaria
Herriko Plaza

06.17 Larumbata
12:00 ARTZINIEGA
AMURRIO HARRO 2023
Tortilla txapelketa, manifestazioa, batukada
Guk Parkea

06.17 Larumbata
17:00 ARTZINIEGA
LAUDIO HARRO EGUNA
Yogurinha Borovaren pregoia, kalejira, takoi lasterketa eta IKUSGUNEAREN karpa
Zubiko Malekoi

06.18 Igandea
11:00 URDUÑA
SAN JUAN AZOKA
Foru Plaza

06.18 Igandea
11:00 ARRANKUDIAGA
EUSKAL ASTEBURUA
Artisau azoka, pilota partidak eta herri kirolak
Herriko plaza

06.20 Asteartea
11:00 AMURRIO
XXII. AIARAKO KUADRILLA KO ADINEKOEN TOPAKETA
Kultur Etxea

06.22 Osteguna
19:00 LAUDIO
'ELKARBIZITZA ESPAZIO AUTOGESTIONATUETAN'
Orbeo Etxea

06.23 Ostirala
12:00 URDUÑA
IKASTURTE AMAIERAKO JAIA
Herri Eskola

INFO +
aiaraldea.eus

kultura

“Nire katarsia da abesti hauen sorrera”



KATARSIA IZENENKO BOST KANTUKO EP-A PLAZARATU DU **MALEN ATXA 'MATX'** MUSIKARI LAUDIOARRAK. LARUNBATEAN AURKEZTUKO ZUEN LAN BERRIA AMURRIO ANTZOKIAN. FAKTORIARA BERTARATU DA BERE PROIEKTUA AURKEZTERA.



Testua eta argazkia
**Aimar
Gutierrez Bidarte**

EP berria prestatu duzu, 'Katarsia'. Zeraurkituko dugu entzuleok bertan?

'Katarsia' bost abestiz osatutako oso proiektu pertsonala da. Abestiak hortik erdi-idatzita nituen, ez nekien zer egin horiekin, eseri eta bukatzea erabaki nuen arte. Saiatu nintzen guztiei pixka bat forma ematen ea horiekin zerbait egin zitekeen ikusteko. Egoitz Uriarteri proposatu nion niri laguntzea, eta animatu egin zen. Urtarriletik hona ibili gara grabaketa prozesuan, bost abesti lortu ditugu eta horiek guztiak EP batean elkartu ditugu.

Zergatik 'Katarsia'?

Istorio kuriozoso da. Nik Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasten dut Gasteizen. Lehenengo lauhilekoan literatura arloa daukagu; Aristoteles eta horrelakoak ikasten ditugu bertan. Bat-batean katarsia hitzarekin egin nuen topo eta nik ez nekien zer zen.

Katarsia sentimenduen deskarga bat da. Abestiak idazten ditudanean ez naiz inoiz geratzen pentsatzera zer den idazten dudana, edo zergatik idazten dudana gauza bat edo bestea. Orduan konturatu nintzen, nik hitzez edo inori helarazten ez nizkion sentimenduak abesti bihurtzen ditudala. Azken finean nire katarsia, edo emozioen deskarga hori, bada abesti hauen sorrera.

Duela bi urte Faktorian eskaini zenuen zure lehenengo kontzertua. Geroztik, nola aldatu da Malen Atxa eta Maatx proiektua?

Nik ez dut uste gehiegi aldatu naizenik. Atzera begiraturata egia da kontzertu ugari eskaini ditugula, izan bakarka edota Cuatro Bancoseko kideekin, haiei ere eskerrak. Abestiek ere beste forma bat hartu dute.

Faktoriako lehenengo kontzertu hura 'toma de contacto' izan zen. Nik Amurrioko musika eskolarekin eskainiak nituen pare bat kontzertu, baina, beti bertsioak joz. Faktoria izan zen jendeak nire abestiak aurrenekoz entzun zituen tokia. Orain orduan baino presio gehiago sentitzen dut, honezkero publikoak ezagutzen dituelako abestiak.

Amurrio Antzokian aurkeztu duzu zure azken lana.

Alexek, Cuatro Bancoseko bate-riak, bota zidan proposamena: "Zergatik ez diozu Amurrioko

Udalari galdetzen ea zure aurkezpena egin dezakezun Antzokian?". Nik ez nuen inolako erantzunik espero, eta baiezkoa eman zidatenean, urduritzen hasi nintzen. Zer egin behar genuen?

Entseatzeari ekingenion orduan. Nik Egoitz Uriarterekin ekoiztu ditut abestiak, Cuatro Bancoseko kideek ez zituzten ezagutzen. Gainera, bost abestirekin soilik ezin genuen kontzertu bat eskaini. Prozesu luzea izan da, martxoan hasi ginen honekin eta azken unera arte egon gara zuzenekoa prestatzen.

“Orain Faktoriako hasiera hartan baino presio gehiago sentitzen dut, honezkero publikoak ezagutzen dituelako abestiak”

Aurkezpenaren aurretik 'Laztankiro' aurrerapen kanta plazaratu zenuen. Zeintzuk dira bere osagai nagusiak?

Amak ere askotan galdetzen dit abesti honek eta besteak zer esan nahi duten, nori dauden idatziak... Eta askotan nik neuk ere ez dakit erantzuna (barreak). Hitzek egun batean gauza bat transmititzen didate eta beste egun batean beste zerbait. Abestiak idazten ditudanean prozesua nahiko luzea izaten da, ez ditudalako egun bakarrean idazten gehienetan, eta ni ere fase desberdinetan egoten niaz.

Nik beti esaten dut nire abestiek interpretazio desberdinak izan dezaketela entzuten duen pertsonaren arabera.

Laztankirok maitasunez esan nahi du. Egia esanda, ez dakit zergatik aukeratu genuen abesti honen bideoklipa garabatzea. Aurkezpenaren aurretik bi abestiren bideoklipak kaleratu nahi genituen, baina eguraldia tarteko bakarra grabatu dugu. Baina, ziur datozen asteetan berriren bat egingo dugula.

Bideoklipa aipatu duzula, Lau-dioko hainbat sortzailek parte hartu dute bertan. Nolakoa izan da grabaketa?

Aktore lanetan Uxue Derecho ibili da. Nire kuadrillako neska bat da, eta iterpretazioa ikasten du Bilbon. Egia esanda, EP-aren grabaketa osoan zehar asko lagundu nauen pertsona izan da, eta behin baino gehiagotan aipatu zidan bideokliparen ideia. Niri kamarak eta argazkiak ez zaizkit bereziki gustatzen. Nahiko biluzik ikusten nuen nire burua kamararen baten aurrean, eta berari proposatu nion bideokliplean agertzea. Azkenean, ni ere agertu naiz, engainatu egin ninduten (barreak).

Grabaketa lanetan Naia Vallejo aritu da, Laudioko beste neska bat. Proposatu genionean zalan-tzarik gabe eman zigun baiezkoa, eta plazer bat izan da berarekin lanean aritzea. Espero dut etorkizunean proiektua elikatzen jarraitzea. Naiak egin ditu ere EPa promozionatzeko argazkiak.

“Nik beti esaten dut nire abestiek interpretazio desberdinak izan dezaketela entzuten duen pertsonaren arabera”

EParen azaleko irudia Naia Vallejorena da ere, baina diseinua nire beste lagun baten lehengusinak egin du; Ane Kareagak.

Abestietara itzulita; nolakoa da Maatx-en sorkuntza prozesua?

Txikitatik beti izan dut ohitura gauza askotan arreta jartzeko: kartelak, esaldiak, liburuak... Buruan beltak ematen dizikiot guzti horri eta hortik abiatzen naiz abestien hitzak idazterako orduan. Duela urte batzuk telefono mugikorrean idazten nuen asko, baina apurtu egin zitzaidan eta abesti pila bat galdu nituen. Kristoren amorrua eman zidan.

Etxean amaren lagun batek oparitutako koadreno gorri batekin egin nuen topo. Orain koadreno horrekin nabil gora eta behera, nire hitzak eskuz idazten. EParen promoziorako era baliatu dugu koadren gorri hori.

Behin letra dudanean, melodiarekin hasten naiz. Ni nahiko oinarritzkoa naiz gitarrarekin,

“Epe luzeagora begira ez dakit zer gertatuko den, ez naiz horretan pentsatzen jarri. Momentuz nire hobbya, nire denbora librean egiten dudana zerbait”

baina badaukat nire estruktura propioa. Hori Egoitzekin eta beste kideekin elkarbanatuta behin betiko forma ematen diogu abestiari.

Behin EParen aurkezpena igarota, zeintzuk dira zure asmoak datozen hilabeteetarako?

Ez daukat ideia askorik buruan, ezta denborarik ere ez. Irailean Erasmusean noa Italiara, uste dut EPa atera dudala nahiko garai arraroan. Badator uda eta udarekin kontzertuak, baina momentuz bakarrik ditut ekainekoak lotuta: ekainaren 17an Artziniegako igerilekuetan eta ekainaren 30ean Laudioko Sanpedropekoetan. Ari naiz uztailean eta abuztuan kontzertuak lotu nahian.

Epe luzeagora begira ez dakit zer gertatuko den, ez naiz horretan pentsatzen jarri. Momentuz nire hobbya, nire denbora librean egiten dudana zerbait. Zerbait sortzen bada aurrera, baina une honetan ez dut beste asmorik.



Amurrio Antzokian aurkeztu zuen Malen Atxak bere EP berria, iragan ekainaren 10ean. **Nahia Vallejo**

kultura

“Idaztean nire sentimenduetan murgiltzen naiz”

IRAIDE GARCIA BLANCOk (Amurrio, 2008) ZARAUBE INSTITUTUKO AZKEN HIRU LITERATURA LEHIAKETETAN PARTE HARTU DU ETA EMAITZA OSO ONAK ESKURATU DITU. OLERKIAK ZER EMATEN DION AZALDU DU.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Olerkiaren munduan zein aitoren lortu dituzue?

Berez, poesian hasi nintzen instituan sartzean. Heldu zitzaidan literatura lehiaketa zegoela eta izena eman nuen. Gogoko izan nuen eta hasi nintzen idazten. Orain, jendeak kontatzen dizkidan istorioak idazten ditut. Emozioak adierazteko balio dit.

Nolakoa da istorio horiek idazteko prozedura?

Kontatzen dizkidan istorioak eta saiatzeko naiz esandakoa jasotzen eta, bereziki, euren sentimenduak. Gero bidaltzen diot idatzitakoa bere istorioa kontatu didan lagunari, ea zer iruditzen zaion jakiteko.

Hori da lehiaketetara eramaten duzuna?

Batzuk egiten ditut niretzat, beste batzuk Zaraube Institutuko Literatura Lehiaketan aurkezten ditut.

Zein esperientzia izan duzu lehiaketa horretan?

Iaz lehen saria irabazi nuen eta aurreko bigarren saria, baina ondo egon da. Ez dut asmorik bestelako lehiaketetan parte hartzeko, baina aitak beti esaten dit egin behar dudala, oso ondo baitaude nire olerkiak.

Irakurketa edo idazketa talderen batean parte hartzen duzu?

Ez, nire kabuz egiten dut dena. Nire erreferenteak nire lagunak dira, eurek kontatzen baitzikidate euren bizipenak.

Zenbat istorio idatzi dituzu?

21 istorio. Lehiaketetan hiru baino ez ditut aurkeztu.

DBHko lehen mailan aurkeztu nuen lehena eta ez nuen irabazi, baina nahiko ondo zegoen eta gogoko izan nuen. DBHko bigarren mailan amodioari buruzko olerkia idatzi nuen eta aurreko, aldiz, desamodioren inguruan.

Zer da gehien gogoko duzuna idazten duzunean?

Nire sentimenduetan murgildu naitekeela. Inork ez dit eragozpenik sortzen eta nire kaxara nago.

Zer egiten duzu idazten duzunarekin?

Instagram kontua daukat (_poemitas_foryou), nahi dudanean bertsoen bat argitaratzen dut. Jarraitzaile gutxi ditut.

Ba al dakizu zer ikasi nahi duzun? Harremana dauka literaturarekin?

Sei urte ditudanetik argi izan dut medikuntza ikasi



“Orain jendeak kontatzen dizkidan istorioak idazten ditut”

nahi nuela, zehazki, erizaina izan nahi dut. Edonola ere, aitak beti esaten dit zerbait egin ahal dudala, ondo egiten baitut. Ez dut guztiz baztertzen lehiaketa gehiagotan parte hartzea etorkizunean.

Denbora asko bideratzen duzu literaturara?

Berez, irakurtzea ez dut oso gogoko. Nik maite dudana idaztea da. Gueuz inspiratzen naiz eta idazten dut. Ilunpean sakelakoa hartu eta idazten dut. Jolastokian batzutan ere inspirazioa heltzen zait eta idazten dut. Ordubate egon ninteke konturatu gabe. Hegan doa denbora.

Zer esaten dizute zure lagunek istorioak irakurtzen dituztenean?

Oso gogoko dituzte, batzuek negar ere egin dute. Nire irakasle bati idatzi nion olerkia ezkondu behar zelako

eta negar egin zuen klasean bertan. Egia esanda, ilusioa eragin zidan horrek. Nik gehien gogoko dudana da jendea hunkitzea. Nik idazten dudanean uste dut gustuko izango duela jendeak, baina berresten dudanean, poztasuna ematen dit eta gehiago idazteko gogoak ematen dizkit.

“Gueuz inspiratzen naiz eta idazten dut. Ilunpean sakelakoa hartu eta idazten dut. Jolastokian batzutan ere inspirazioa heltzen zait eta idazten dut”

Pentsatu al duzu nori idatziko diozun hurrengo olerkia?

Nire lagunek eta ezagunek kontatzen dizkirate euren esperientziak edo sekretuak eta nik idazten ditut. Ikusten dut ondo geratzen ari den edo ez eta bidaltzen diet. Denbora nahiko bideratzen dut. Inoiz ez dakizu noiz dagoen bukatuta eta azken ukitua eman behar zaio.

Noiz dakizu olerkia amaitu dela?

Bertso ugari idazten ditut eta gero dator nik 'puntu eta bukatuta' deritzodana. Amaiera da. Edonola ere, batzutan inspirazioa etortzen zait gero eta jarraitzen dut idazten. Bukaera non dagoen esatea zaila da.

Amurrioko norbaitekin partekatzen duzu zaletasunaren inguruko iritzia?

Lehiaketan aurkezten den jendeak modu anonimoan egiten du, hortaz, ezin duzu jakin nor den. Dena den, ni poz-pozik noa lagunengana nire olerkiarekin eta pozik badaude horrekin, dagoen moduan uzten dut. Ez badu gogoko, aldatzen dut.

Institutuan hasi baino lehen ez zenuen literatura idazten?

Ez, gogoko nuen olerkiak irakurtzea Internet bidez, baina ez nuen idazten. Poesiari buruzko artikuluak irakurtzen nituen. Egia esanda, ez daukat egile gogorik. Esaldiak hartzen nituen eta handik ateratzen nuen inspirazioa.

elkarrizketa

“Laudioko kontzertuaren ostean nire abesti propioak egiten hasiko naiz”

JIMENAK (Laudio, 2007) BERE ESTREINALDIKO KONTZERTUA ESKAINIKO DU LAUDION EKAINAREN 23AN, 20:00ETAN ALDAI PLAZAN. EMANALDI HORRI ETA ESKU ARTEAN DITUEN BESTE PROIEKTUEI BURUZ MINTZATU GARA BERAREKIN.



Testua eta argazkia **Txabi Alvarado Bañares**

Zure estreinako kontzertua eskainiko duzu hurrengo astean. Aurretik ez duzu beste emanaldirik egin?

Araba Euskaraz jaian abestu nuen. Audio Ikastolak Urrezko Makila jaso zuen eta omenaldi horretan kantatu genuen, baina ez dut beste emanaldirik egin.

2021ean izan zen hori. Zer egiten aritu zara ordutik hona? Nola iritsi zara kontzertu bat emateko erabakia hartzera?

Nik txikitatik daramat Landaluze musika eskolan ikasten eta prozesu bat eginda daukat musikan, gitarra jotzen. Duela bi urte saxofoiarekin hasi nintzen eta, horrez gain, oso txikitatik (bost urte nituenetik edo) nabil ArteOn abesbatzan. Bertan garatu dut nire abesteko zaletasuna. Modu horretan iritsi naiz gaur egungo egoerara. Udaletxeak jotzea proposatu dit eta aukera aprobetxatu dut.

Zer nolako emanaldia izango da ekainaren 23an Laudion eskainiko duzuna?

Kontzertuak apur bat hotz harrapatu gaitu. Gauzak hala, kanta batzuen bertsioak joko ditugu, euskaraz, gaztelaraz zein ingelesez. Kontzertu laburra izango da, jarraian beste ikuskizun bat egongo delako. 40-45 minutuko emanaldia izango da, hainbat bertsio gure modura joko ditugu gitarrarekin. Ondoren, aurrerago, nire abestiak konposatzen hasiko naiz, nire bidea jarraituz.

Xabi Basterra musikari laudioarra izango duzu bidelagun oholtza gainean. Nola garatu duzu harremana berarekin?

Abesbatzan abesten du gurekin, bertan ezagutu genuen elkar, nire amaren laguna zelako. Harreman ona egin dugu.

Zer abesti joko dituzue?

Euskaraz hainbat abesti ezagun plazaratuko ditugu, herrian jada ezagunak direnak. Ondoren, nazioarteko artisten kantak joko ditugu. Vanesa Martinen pieza bat hartu dugu, Zea Maysen beste bat... eta ingelesez nazioarteko artista batzuen kantak hartu ditugu.

Gitarraz gain, saxofoia ere joko duzu kontzertuan?

Honetan ez, saxoa jotzen duela gutxi hasi naizelako, baina

hurrengo kontzerturen batean aterako dugu.

Aurrerantzean ere Xabirekin jotzen jarraitzeko asmoa duzu?

Kasuaren arabera. Oso harreman ona egin dugu, musika zein harreman pertsonal aldetik. Horregatik, uste dut kolaborazioak egiten jarraituko dugula, ondo uztartzen garelako instrumentuekin eta ahotsekin, oso uztartze polita sortzen da, nire ustez. Bakarleri moduan hasi nuen nire ibilbidea. Orain Xabirekin arituko naiz, nire lehengo kontzertua delako eta ziurtasuna ematen didalako. Xabik badu esperientzia eta badaki horrelako kontuetan nola moldatu. Baina aurrerantzean agian bakarleri moduan egingo ditut gauzak.

Abesti propioak idazteari ekin diozu jadanik?

Duela hilabete batzuk ekin nion letra idazteari eta gitarrarekin konposatzeari. Oraindik ez dut piezarik egin, baina horretan nabil.

Datozen hilabeteetarako, beraz, zein da zure plana?

Musikaren bidean jarraitzea gustatuko litzaidake, gozatzen dudalako eta txikitatik gustatu izan zaidalako musikaren munduaren barruan egotea. Konposatzea oso zaila da, gauzak landu behar dira eta denbora bat eskatzen du, baina bide hori jarraitzeko asmoa daukat. Kontzertuak emateko aukerak sortzen badira, kontzertuak eman gozatu nitzuke.

Aipatu duzunez, baduzu formazio nahiko musikaren esparruan. Horrek erraztasun bat emango dizu.

Bai, nabaritzen da. Beste instrumentu bat ikasten hasten zarenean, adibidez, formazioak erraztasuna ematen dizu partiturak irakurtzerako orduan. Ulermenean ere erraztasuna ematen du, eta musika entzutean ere askoz gauza gehiago sumatzen dituzu lehenengo inpresioan entzuten duen pertsona batek baino.

Musika akademian musika klasikoa izan duzu ikasgai, baina zeintzuk dira, horretaz gain, zure inspirazio iturri edo erreferenteak?

Baditut zenbait erreferente, nazioarteko musikariak dauden zenbait artista handi. Pop-a eta baladak ditut gustuko. Euskal musika ere entzuten dut, gustu nahasketa daukat.

Utopian bizitzeko erronka Zumalakarregi etorbidean aldarri



Alberto Fernandezek sinatu du Kulturlab ekimenaren esku-hartzea. Aiaraldea.eus

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Horma-irudi berri batek janzten du Laudioko Zumalakarregi etorbidea. Alberto Fernandezek sinatu du Kulturlab ekimenaren 'Bigarren Azala' proiektu artistikoaren 13. esku hartzea, eta datorren hilabete zehar ikusgai egongo da. UOCeko Arte Gradua ikasten ari da Fernandez, eta bere estilo pertsonalaren muina prozesuan bertan dagoela aldarrikatu du.

Utopian bizitzaren beharra

"Utopian bizitzea", hori da Alberto Fernandezek obraren izenburua. Artistak trafiko seinale erraldoi bat bat irudikatu du Zumalakarregi etorbidearen erdian. Derrigor-tasun-seinaleak "utopía" hitza du erdian, Fernandezek hitzetan "ideal

utopikoaren aginduzko ekintzaren aurrean" jartzeko ikuslea.

Obrak hausnarketa bat mahai-gaineratu nahi du: utopian bizitzeko beharra. "Utopian bizitzeak etorkizuna orainetik irudikatzen du, sortzen diren ahalak beste iruditeria batek irtenaraziz".

Frederic Jamesonen esaldi batean laburbildu du Alberto Fernandezek aldarrikatu nahi izan duen horren muina: "Errazagoa da munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoaren amaiera baino, badirudi etorkizun okerragoak irudikatzen dituzten hobeak irudikatzen dituzten kolektiboak". Distopiek irudimen kolektibo hartzen duten garaiotan, duela bi urte pandemia betean sortutako "ehun-loturak eta balizko potentziak" aldarrikatu ditu

Fernandezek: "Utopian bizitzeak gure nortasun propioa eta kolektiboa ezartzen duen iruditeria berreskuratzaren alde egiten du, baita gure subjektibotasunak programatzen dituzten kodeak berrantolatzearen alde ere".

Layna Martinezen esaldi batekin borobildu du Zumalakarregiko obraren azalpena: "Etorkizun okerragoa irudikatzen badugu, oraina onargarriagoa irudituko zaigu eta ez dugu gauzak aldatzeko borrokatuko".

Bigarren azala

Honezkeroko 13 dira Zumalakarregi etorbidean diren esku hartze artistikoak. Iaz abiatu zuen ekimena Kulturzaleak Elkarteak Laudioko sortzaileei espazio ikusgarri bat eskaintzeko asmoz. Obrek hilabete irauten dute.

Abian da Mendieta elkartearen musika klasikoko VII. zikloa

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Conrado Moyak Johann Sebastian Bachen piezak interpretatzen zituela, hasiera eman zioten ekainaren 3an Mendieta Kultur Elkarteak musika klasikoa erdigunean jartzen duen jaialdi berriari.

Ekainaren 24an agustindarren komentuan Gonzalo eta Sofia Martin anai-arrebek osatutako instrumentu-bikoteak biola eta biolontxelo saioa eskainiko dute.

Zikloak aurrera jarraituko du uztailaren 1ean Enrike Solinis eta Euskal Barrokensemble antzinako musikako taldearen eskutik. Colores del Sur programa aurkeztuko du laukoteak eta musika barrokoa izango da hizpide.

Txikienek ere euren lekua izango dute The Three Ravens kontzertuarekin uztailaren 22an Arteko Gure Amaren Santutegian, 6 urte-

tik gorako haurrak dituzten familientzako proposamen didaktikoa izango baita, izenburu bereko balada ingelesean oinarritua. Bala-da hau, XVII. mendearen hasieran argitaratutako abesti tradizionala da eta hiru bele, zaldun bat eta bere emaztea, txakur eta belatzen istorioa kontatzen du.

Amaitzeko, Jakob Hirukoteak Ludwig van Beethoven eta Dimitri Shostakovich konpositore handien arteko elkarriketa musikala proposatuko du.

2014an sortu zen Mendieta Kultur Elkarteak, auzoko Santo Tomas eliza zaharberritzeko eta bertan musikari eskaintako kultur zentro bat jartzeko helburuarekin. Hasierako xedea aldatuta, Artziniegan kalitatezko musika sustatzea eta antzinako musikako, musika klasikoko eta musika tradizionalen kontzertu-zikloa eskaintzea da oraingo asmoa.

OROZKOKO AZOKA

Ekainak 24
10:00 - 14:00

Nekazaritza elikagaiak, produktuak, ganadu eta artisau azoka.

Goizean zehar:
Kalaka jokuak plazan eta trikitilariak.

Herri bat merkatu bat



UDALEKU MUSIKALA

Ekainak 26 - Uztailak 14
(asteko txandak) goizeetan

3-12 urte bitarteko haurrentzat

IZEN EMATEAK 699 88 35 63

Instrumentuak
Musika jolasak
Entzumena
Erritmoa
Ikus-entzunezkoak
Konboak



@drumgorri_musika_eskola



orozko

argazki erreportajea

Artziniega eta inguruak koloreztatu ditu Licore Karpy talde profesional ohiaren omenez egindako ospakizunak. Gonbidatu berezia izan du aurten martxa ez lehiakorrak; Marino Lejarreta txirrindulari profesional ohiak izan da bertan.

La Karpy martxak kolorez bete du Artziniega asteburuan

La Karpy txirrindularientzako ibilaldiak edizio berria izan du asteburuan Aiaraldean. Ostiralean Amurrion egon ziren txirrindularitza museoa bisitatzen eta larunbatean, aldiz, Artziniégako Alde Zaharreko Jaietan zein Peñista

egunean aritu ziren txirrindulari klasikoak. Azkenean, igandean 9:00etan Etnografia Museotik abiatu eta antzinako bizikletak, arropa eta autoak erakutsi zituzten errepidean barrena, tropel bitxia osatuta. Amaitzeko, bazkaria egin

zuten indarrak berreskuratzeko. Izan ere, La Karpy egitasmoaren helburua da Licor Karpy talde profesional desagertua gogoratzea eta bizikleta klasikoekin (1985ekoak beranduenez) ibilaldia egitea, garai horretako arropa jantzita.




MARINO LEJARRETA

Gonbidatu berezia izan zuen bizikleta martxaren aurtengo edizioak: Marino Lejarreta. Berrizko txirrindulari profesional ohiak Giroko eta Tourreko etapak irabazi zituen, eta igandean ibilaldi ez lehiakorrean parte hartu zuen.

Argazkiak: Miguel Martin eta Nagore Portillo



argazki erreportajea



kirola

“Endorfinek ematen duten ongizateaz berriz gozatzea izugarria izan da!”



OIHANE SALCEDO (Laudio, 1983) BIGARREN HAURDUNALDIAREN OSTEAN MURGILDU ZEN CROSFITAREN MUNDUAN, KIROLA EGITEKO PREMIAZ. DUELA BI ASTE MANCHESTERREN IZAN DA HYROX MODALITATEKO MUNDUKO TXAPELKETAN LEHIATZEN.



Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Crossfiteko Hyrox modalitatean aritzen zara zu. Zertan datza modalitate hau?

Hyrox modalitatean aritzen naiz ni; Crossfiteko lasterketa bat da, finean. 8 kilometroko ibilbidea osatu behar dugu korrika, eta kilometro bakoitzaren artean Crossfittetik datorren indar edo erresistentzia proba bat egin behar dugu.

Beti dira proba berdinak: lehenengo mila metro esku, bigarrena lera bultzatzea, hirugarrena lera tiratzea, laugarrena *burpeeak* egiten aurrera jauzi egitea 80 metroan, bosgarrena mila metro arraun makinarekin, seigarrena txinga moduko batzuk egitea, zazpigarrena zakua garraiatzea eta azkena *wallball*, sentadillak eta sei kiloko pilota baten jaurtiketa diena batera.

Munduko txapelketan izan zara Manchesterren baina aurretik bide luzea egin duzu.

Txapelketa honetara iristeko giltza Malagan egin nuen sailkapenak eman zidan. Lehenengo izan nintzen. Bilbon ere parte hartu nuen eta hirugarren postua lortu nuen. Sailkapen orokorreko emaitzakeraman ninduen Manchestertera.

Nolako izan zen Manchesterre joateko deialdia jaso zenuen unea?

Malagan sailkatu ostean mezu bat jaso nuen Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera nuela esanez. 48 ordu nituen deialdiari erantzuteko, bestela sailkapen orokorrean nire azpitik geratutakoari emango zioten aukera.

Asko pentsatu nuen, buruari buelta eta buelta igaro nituen bi egunak. Oso ziur nengoen ez nintzela joango, gero iritziz aldatu nuen. Azkenean, epea amaitzeko ordubete falta zenean, baiezkoa eman nuen. 48 ordu horietan Gorobel Crossfiteko kideek, familiak eta lagunak asko animatu ninduten baiezkoa eman nezan. Haien laguntza eta animoei esker, erabaki egokia hartu nuen. Gorobelen, gainera, ni laguntzeko zozketa bat presatu zuten. Bihotz bihotzez eskertzen dizkiet eskainitako laguntza eta aholku guztiak.

Nola prestatu zenuen Manchesterreko hitzordua?

Hyrox modalitatearen barruan maila desberdinak daude, emakumezkoetan *women* edo *pro-women* dira maila horiek. Ni orain arte *women* modalitatean lehiatzen

nintzen, eta Malagako proba ere modalitate horretan egin nuen. Manchesterreko txapelketan, ordea, kategoriak bateratu eta bakarra egin zuten: *pro-women*. Ondorioz, ohitua nengoena baino pisu gehiagorekin lehiatu behar nuen proban; *womenekin* pisu gutxiago eta errepikapen gutxiago egin behar izaten dira.

Bost aste izan nituen pisu horrekin entrenatzeko. Prestatzaile berezi batekin entrenatu nuen. Pisua ezezaguna zitzaidanez, estrategia ez nuen oso argi. Horregatik, lasterketan kontserbatzaile aritu nintzen, probetan ez zigortzeko. Azkenean espero baino hobeto atera zitzaidan.

Nolako esperientzia da Munduko Txapelketan aritzea?

Oso polita. Denboraz oso larri iritsi ginen, txapelketaren inaugurazioko herrialdeen desfilea galdu genuen. Elite mailako txapelketa ikusteko aukera izan genuen, ordea, munduko hamabost hoberenak gizonetako eta emakumezkoen kategorietan. Ikusgarria izan zen, oso giro ona zegoen. Niri kirola beti gustatu izan zait, eta giro horretan oso pozik ibiltzen naiz.

Guk bigarren egunean geneukan proba. Oso gaizki egin nuen lo urduritasunagatik. Probarekin hasi bezain laster pasa zitzaizkidan kezka guztiak, burua beste kontu batean zentratzen da.

Espero zenuen lortutako marka?

Espero nuen denbora gehiago egitea. Ordu bat eta hemeretzi minututan osatu nuen lasterketa, eta nire aurreikuspenen arabera, sei minutu gehiago tardatzea espero nuen. Proba berria zen niretzat, nire ohiko pisuarekin askoz denbora gutxiagoan osatzen dut ibilbidea. Seme nagusiari beti esan izan diot, bizitzan lortu nahi dituen helburuak, zailak iruditu arren, lortzeko modu bakarra norberaren buruarenganako konfiantza eta saiatzea direla. Agurtu ginenean munduko txapelketa irabazi behar nuela esan zidan. Nik erantzun nion ahalik eta hoberen egingo nuela, baina, irabaztea ezinezkoa zela. Berak hau erantzun zidan: “Ama, zu saiatu eta egin esfortzua, eta horrela lortuko duzu; gogoratu Athletickek Bartzelonari irabazi ziola!!!” (barreak).

Oso pozik nago denboraldiko emaitzekin: Espainiako lehenengo nire kategorian; munduko 22. eta estatuko ranking orokorrean (adin maila guztien artean) 4. denborarik onena.

Nola murgildu zinen Crossfitearen munduan?

Nire bigarren haurdunaldiaren ostean denbora luze egon nintzen kirola egin gabe. Betidanik egin izan dut, batez ere korrika. Haurdunaldi baten ostean, eta kirola egiten hasi aurretik, oso inportantea da zoru pelbikoa lantzea, nik fisio batekin landu nuen. Horren ostean prest nengoen berriro ere kirolera bueltatzeko. Motibazioa behar nuen, eta urte eta erdiren ostean Grobel Crossfiten eman nuen izena, talde lana bilatzen nuelako nagusiki.

Hasi eta gutxira Hyrox modalitatea ezagutu nuen. Korrika egitekin nentorrenez asko erakarri ninduen. Crossfitean alterofilia asko sartzen da eta hori ez nuen hainbeste gogoko, baina korrika eta indar lana bai, asko.

Praktikatzen hasi nintzen, izena eman nuen lasterketan eta, Malagako lasterketari esker, Munduko Txapelketan sailkatu nintzen; zortea izan dut. Adin honekin ez duzu horrelako esperientziarik bizitzea espero. Oso polita izan da, are gehiago emaitza honekin!

“48 ordu horietan Gorobel Crossfiteko kideek, familiak eta lagunek asko animatu ninduten baiezkoa eman nezan”

Niretzat oso garrantzitsua izan da haurdunaldiaren ostean berriro ere aktibo sentitzeko, indarrak berreskuratzeko eta korrika egiteaz disfrutatzen. Endorfinek ematen duten ongizateaz berriro gozatea izugarria izan da!

Etxekoan babesak jasoko zenuen.

Etxekoak uneoro daude ni animatzen. Txikitatik bizi izan dut kirola. Nitaz harro daudela esaten didate. Bizi esperientzia hau familiarekin bizi izana motibagarriagoa izan da. Seme nagusiak bere pelikulak egiten ditu buruan; ama superhero bat balitz bezala (barreak). Gogoko dut berak horrela bizitzea esperientzia hau. Senarra ere Manchesterrera etortzeko gogoekin geratu zen, baina zuzenean jarraitu ahal izan zuen lasterketa.

Aurrera jarraitzeko gogoz?

Bi asteko atseden denbora agortuta hurrengo denboraldia prestatzen hasi naiz burubelarri. Datorren denboraldian aurtengo marka hobetzea gustatuko litzaidake.



kirola

FUTBOLA

Arabako Kopako txapeldun berria da Alzarrate



Senior kategoriako taldeak 2-0 irabazi zuen final. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Kopa Gasteiztik Laudiora ekarri zuen Alzarrate Kirol Elkartek. Senior kategoriako kideek Betoñon jokatu zuten finala igandean Hauskaitz taldearen aurka eta 2-0 gailendu ziren.

Alzarrateko seniorren emaitzak kontrako iradokitzen badu ere, partida zaila izan zen Hauskaitzen aurka izan zutena. Irune Egiguren entrenatzaileak azaldu du, hasteko, hamabi jokalaria baino ez zituztela norgehiagokan erabiltzeko lesioen ondorioz, baina hasieratik oso gogotsu ekin zioten.

Horri esker, gol aukerak izan zituzten, nahiz eta aurkariek ere eurenak eduki. Gauzak horrela,

Izaro San Miguelen gola ez zen heldu lehen zatiko 45. minutura arte, hau da, denbora amaitzeaz zegoela.

Laudioarrak gol psikologiko baten aldearekin joan ziren atsedendira eta bigarren zatian Hauskaitzek hartu zuten partidaren iniziatiba. Egigurenek aitortu du berdintzeko aukera argiak izan zituztela, baina ez zutela lortu eta 70. minutetik aurrera indarra galtzen joan zirela.

Azkenean, norgehiagoka amaitzeko minutu gutxi falta zirelarik, Haizea Andinok bigarren gola egin zuen eta gasteiztarrek amore eman zuten.

Hala ere, ia amierara arte heldu ziren Hauskaitzekoak irabazteko aukerekin.

TENISA

Arabako hiru txapeldun berri ditu Laudioko Tenis Klubak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudio Tenis Klubak balorazio oso positiboa egin du denboraldiari dagokionez. Izan ere, bere hiru jokalarik lortu dute Arabako txapela janztea.

Lehenik eta behin, Sare Esturok eta Jon Lujak irabazi zuten 10 urtetik beherako kategorian Laudion jokatuako lehiaketan.

Gero, Ander Urquizak ere garaipena lortu zuen Gasteizen lehiatutako Arabako Haur Kategoriako Txapelketan. Torneo horretan Ariane Sarachok bigarren postua es-

kuratu zuen, finalera heldu eta gero. Andoni Agirretxe Laudio Tenis Klubeko kideak azaldu du oso pozik amaitu dutela denboraldia, lau gazte heldu baitira finaletara eta horietako hiru, gainera, irabazle izan ziren.

Arrakasta izugarritzat jotzeaz gain, Agirretxek azpimarratu du oso gustura aritzen direla eguneroko lanarekin eta ikasleekin, lehiatzen direnak Euskadiko eta Espainiar estatuko txapelketetan. Agirretxek uste du sintonia onaren eta ahaleginaren isla direla emaitzak.

TXIRRINDULARITZA

Denboraldi "ikusgarria" egiten ari dira Aiarako txirrindulariak



Aiarako txirrindulariak talderik onena izan ziren Luis Meokiren memorialean. @CcestellaL

Testua
Jone Gartzia Gerra

Pozik agertu da Aiarako Txirrindularitza Elkarteko kirol zuzendari Valentin Campo taldea egiten ari den denboraldiarekin. Postu eta marka garrantzitsuak eskuratzen ari dira bertako kirolariak, eta denboraldi "ikusgarria" egiten ari direla uste du.

Martxoan hasi ziren lehiatzen, etxean, Aiarako Biran. "Egun Espainiako estatuan kadeteen kategorian dagoen lasterketarik garrantzitsuen" da, zehaztu du Campok. "Ezin hobeto" egin zuten denek, birak dituen sei etapetatik taldeka lau irabazi baitzituzten. Gainera, Iker Colmenerok azken bi etapak irabazi zituen eta birako txapeldun izan zen sailkapen orokorrean. "Balentria handia dela esan genezake", adierazi du kirol zuzendariak. Horrez gain, Ekhi Uriarte zortzigarren sailkatu zen eta Luyando-Ganzedo taldea (Aiarako Txirrindularitza Elkarteara), garaile izan zen taldekako sailkapen orokorrean ere; "oso emaitza onak", Camporen esanetan.

Martxotik hona "astebururo hainbat lasterketa" egin dituzte Euskal Herrian zehar eta baita Kantabrian ere. Kirol zuzendariak azaldu duen bezala, Iker Colmenerok sei lasterketa irabazi ditu; Jon Egiak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Seguran (Gipuzkoa) kadeteen lehenengo urteko mailan; eta Ekhi Uriartek bi lasterketa irabazi ditu, bata Galizanon (Kantabria) eta beste bat Etxebarrian (Biz-

Martxoan hasi zuten denboraldia Aiarako Txirrindularitza Elkartekoek. Geroztik, maila indibidualean bederatzi garaipen eskuratu dituzte eta hamar taldeka

kaian). Guztira, bederatzi garaipen lortu dituzte maila indibidualean eta hamar talde moduan. "Oso zaila da egiten ari direna egitea", dio Valentin Campok. Orain "transizio fase batean" daude, ikasturte amaierarekin eta azterketekin arduratuta, baina kirol zuzendariak aipatu du datorren astetik aurrera buru-belarri murgilduko direla entrenamenduetan, denboraldi luzea geratzen baita oraindik.

Bi helmuga berri

Errepideko denboraldia urria hasieran amaitzen da eta dagoeneko fokua beste bi lehiaketatan dute jarrita. Hurrengo helburua Txuma Klasika dutela zehaztu du Campok, Bizkaian ekaina amaieran egiten den hiru eguneko bira. Irailean Arabako Bira izango da eta hori da taldearen bigarren helmuga. Nolanahi ere, urria amaiera astebururo lehiatzen jarraitzea da euren asmoa.

Gakoa

Valentin Campok oso argi du zein den horren emaitza onak lortzeko gakoa. Lehenik eta behin, "txirrindularien kalitatea" eta, gero, taldean dagoen "giro ona". Izan ere, azpimarratu du talde moduan oso ondo ari direla eta moral aldetik ere indartsu daudela, irabaz dezaketaren sentsazioarekin lehiatzen baitira.

Amaitzeko, taldeko babesleei eskerrak eman nahi izan dizkie Campok: "Haiei esker beste urte batez lehiatzen jarraitu gaitzke".

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Uztailaren 7an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Ibai

Zorionak kanpeon !! Egun bikaina izan. Musu handi asko !!!

Izane



Unax

Gure etxeko kirolaria, 11 urte betetzerakoan eta mito baten ondoan zorionik goxoenak

Ibai, aita, ama, aitite eta amatxi



Arhane

Zorionak Arhane!! Oso ondo pasa zure eguna! Maite zaitugu sorgina!

Familia



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

		9			2		7	8
			4		1			6
1		6		9		5	2	4
	1			2	7			
2	8	7	5		6			
	3				4		8	2
	9	2		6			1	
				8			6	
				4	3			

ZAILA

				8		7		2
	9		7					3
		7	5			4		
	5		8					
					5	3	8	
6			2	3	7		5	
	6	4			3		7	
7						2		
5	2		4			6		9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Irisarrin ospatuko den EHZ Festibalerako sarrera bikoitz bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

EHZ Festibalerako sarrera bikoitza baten zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Ekainak 15, 15:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

KAMILA ZEBRA

Idazlea: Marisa Núñez

Ilustratzailea: Óscar Villán

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Argitaletxea: Kalandraka

Kamila Zebra haize handia egiten duen gune batean bizi da. Bere marrak galtzearen beldur da... Halako batean, galdu egiten ditu eta pasarte ezberdinak bizi behar ditu berreskuratzeko edo dagoen bezala bizitzeko.



1512

Idazlea: Juan Luis Landa

Argitaletxea: Erein

Adina: 12 urtetatik gora

Nafar Erresumaren azken urteak kontatzen ditu liburu honek. Gaztela Nafarroa konkistatzen ari den bitartean bizi diren egoerak kontatzen ditu ilustrazio eta testu dotoreekin. Maitasun eta pasio kontuak ere agertzen ditu idazleak.



JOLAS GUNEA

NOR NAIZ?

ZER DA?

Jolasak, karta batzuk ditu eta buruan jartzeko zinta bat.

Jokalarian zinta buruan jarri eta zein karta hartzen duen ikusi gabe karta bat jarriko du bekokian. Galderen bitartez nor edo zer den asmatu beharko du. Besteek egia erantzun beharko diote.

Jolasa, hizkuntza garatua duen adin guztietako haurrekin egin daiteke. Nagusiagoekin galderak soilik baiezko edo ezezko erantzunekoak izan beharko dira.

Asmatu ezker, beste jokalarik baten txanda izango da



KREMA OPILAK



OSAGAIAK:

- Hostopila xaflak
- Txokolatea
- 4 arrautza
- Litro esne bat
- Balnilla
- Arto-irin goilarakada bat
- 7 goilarakada azukre

AZALPENA:

1. Crema egiten hasiko gara. Horretarako, esnea bitan banatuko dugu. Parte bat sutan jarriko dugu balnillarekin irakiten. Beste partea bote batean jarriko dugu.
2. Botean dagoen esnean arrautzak, arto-irina eta azukrea isuri eta ondo nahastu.
3. Behin sutan dagoen esnea irakiten hasten denean, beste esnea dagoen ontzira bota, nahastu eta berriz nahasketa guztia lapikoan sutan jarri.
4. Ondo nahastu, crema lodi-lodi egon arte. Hozten utzi.
5. Hostopila hartu eta laukizuzen batzuk egin. Crema erdigunean jarri eta paketea itxi. Arrautza batekin gainetik margotu daiteke.
6. Labean sartu, hostopilak esaten duen denbora.
7. Txokolate urtuarekin gainetik apaindu.
8. Hotz edo epel dagoenean jan!



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Araba Euskaraz

Araba Euskaraz egon naiz igandean. Gure eskualdeko autobusa hartu eta bertan igaro dugu igandea. Euskararen aldeko Araba mailako ekimena, euskara Araban zabaltzea eta indartzea helburu duen herrialde mailako ekimen bakarrenetarikoa (bakarra ez bada).

Gaur han bizitako egoera ezberdinez hausnartzen jardun dut eguna. Alde batetik jaiaren ereduaz hausnartu dut, sentsazioa dut eredu ezer gutxi aldatu dela. Kontzertuak, lau puzgarri eta txosnak.

Haurren eskaintzari dagokionez, Ikastoletan pedagogian ematen ari diren aldaketarekin lotuta jaiaren ezer gutxi ikusti genuen. Lau puzgarri eta margotzeko gune bat. Gainera, puzgarrietan zeuden laguntzailerak, gaztelera hutsean ari ziren.

Edari zein janari txosnetan ere aldaketa gutxi, betiko makro enpresen garagardo eta edariak, janaria ere tokikotasunetik urrun...

Bestetik, jaiaren erdian, Euskaltel konpainiako bi komertzial zeuden, postu batean, gaztelera hutsean, Euskaltel konpainiara salto egiteko konbentzitzen. Euskal Herri mailan sortutako irabazi asmorik gabeko konpainiaren bat balitz, behintzat, eredu eta helburuetan bat egingo lukete Ikastolekin. Ordea, horrelako enpresa pribatu bati aukera hori ematea pentsatzekoa da.

Honi guztiari gehitu ahal diogu, jaiaren zegoen jende ugari euskaraduna izan arren, gaztelera hutsean gozatu zuela jaiaz, hori bai, ikurrina aldakan ondo jarri. Lehengo 'Gora euskadi' txapel bakarra ikusi nuen; baina aldaketan lotuta hainbat ikurrina bai, ahoetatik gaztelera bakarrik ateratzen zitzairen bitartean.

Badugu, beraz, zer hausnartu, eta, noski, lanerako beti prest! Kritikak aineratu bai, baina, aldaketa interes, badago ni lanerako ere prest egongo naiz!

Horregatik EKIN Araba EuskarazEKIN eta euskararEKIN!

Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.



Itzala

Zortzi itzal hauen artetik zein ote da zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



Zeep?!

Ezaba itzazu VLUNP, WUP eta MUJ guztiak eta iratxoan gaineko esaera bat agertuko zaizu.

DOMINOAN

Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera



Solange Salome Rico

JAIOTERRIA
TXILE (1997)

BIZILEKUA
OKONDO

BIDAIAREN XEDEA
AITA LAN BILA ETORRI ETA BI URTE GEROAGO
FAMILIAREKIN ETORRI ZEN BERA



“Eguzki ordu gutxiago egoteak psikologikoki eragiten du”

Non jaio zinen zu?

Santiago de Chile hiriburuan. 16 urte nituenean nire aita Txiletik joan behar izan zen eta Espainiako estatura etorri zen, egoera ekonomikoa ez baitzen ona. Izeiko eta osaba genituen hemen eta eurek lortu zioten kontratua aitari eta bi urteren ostean, Europan batu ginen. 18 urte nituen orduan, hortaz, bizitza erdia egin dut hemendik.

Santiago de Chile erraldoia da, nora joan zinen bizitzera?

Kantabriako herri txiki batera, behiek inguratuta. Aldaketa nabarmena izan zen. Txilen hegoaldera jo behar genuen behiak ikusteko eta bat-batean alboan nituen. Aldaketa onerako izan zen, hiriko zarata eta jendetza utzi genituen atzean eta leku lasai batera joan ginen.

Ez zenuen ezer faltan sumatu?

Zintzoki, familia da gehien dardana faltan. Egia da janaria eta jendearen falta ere sumatzen dudala, baina nik uste dut zure toki dagoela zure familia dagoen lekuan. Sortzen joaten zara: Santiago de Chiletik Kantabriara eta handik Euskadira. Familia handitzen joan naiz eta oso ona izan da esperientzia. Asko hazi naiz.

Zuk talka kulturala egoera gehiagotan nabaritu zenuen?

Bai, oso kultura ezberdinak dira. Han, adibidez, gazteak oso berandu hasten dira ateratzen gauetz, aitaren figura indartsuagoa da... Esaterako, bikoteak ipurditik helduta ikustea oso bitxia egiten zitzaidan hasieran edo “zu” hitza erabiltzea jende nagusiarekin. Edonola ere, trantsizio eroso izan zen.

Lagunak botatzen nituen faltan, gehienbat, baina ondo onartu nituden. Nire ahizpak, ordea, oke-

rrago eraman zuen prozesua eta arrazismoak bete-betean jo zion. Talka kulturala handia izan zen.

Noiz utzi zenuen Kantabria?

2017ko amaieran. Nire senarra ezagutu nuen 2011n eta urte batzuk igaro genituen Kantabrian. Nik lan egiten nuen hotel batean eta berak beste toki batean. Baloratu genuen nork zuen lanpostu hobia eta hona etorri ginen. Limpiasen bizi ginen eta nire lantokia 45 minutura zegoen, aldiz, berea ordubetera. Sakrifizio handia zen eta erabaki genuen, hasieran, Barakaldora joatea.

Hasi nintzen lana bilatzen, baina ez nuen topatu ez nekielako euskaraz. Gero lana aurkitu nuen El Corte Inglésen eta hiruzpalau urteren ondoren, langabezian geratu nintzen. Gero, COVID-19 heldu zen eta, etxean ogia egiten nuen, bururatu zitzaidan okin ikastaroa egitea.

Aida ezagutu nuen eta Izan lan egiteari ekin nion. Okondora etorri ginen bizitzera.

Zer moduz Aiaraldean?

Aitortu behar dut Okondon ez dudala jende asko ezagutzen, Laudion ezagutzen dut gehiago eta harrera oso ona izan da. Ez dut arazorik, kontrakoa, gogoko dut hitz egitea eta jendea atsegina izan da.

Bizitza erdia kanpoan egon ostean, zerbait duzu faltan?

Senideak, tradizio batzuk, janaria... Gehienbat familia, atzean utzi baikenituen aitona-amonak, izeko eta osabak, lehengusu eta lehengusinak... Bestalde, nire arbasoak ez dira %100ean txiletarrak. Nire aitaren familia italiarra da eta amarena espainiarra.

Txikia nintzen, ez dut horrenbeste oroitzen Txileri buruz, gehienak orain sortzen ari dira. Oroitzapen onak sortzen ari naiz.

TXILE



DESKRIBAPENA

Txile Hego Amerikako estatua da, Ozeano Bareko kostaldea luzea hartzen du Andeen eta itsasoaren artean. Iparraldeko Txile baso eta larreetan aberatsa da, eta sumendiak eta lakuak dauzka. Hegoaldeko kostaldea fiordo, itsasadar, ubidezko labirinto bat da, penintsula eta uharteak bihurtuz.

AZALERA

756.102 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

19,96 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Gaztelania, aimara, kitxua, mapudungun, rapanui

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio. Araba. 01400
Telefonak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

